

The logo for Vital, featuring the word "Vital" in a stylized, multi-colored font. The letters are composed of overlapping segments in shades of blue, green, yellow, and red, giving it a vibrant, organic feel.

Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

2019 JARDUERA-TXOSTENA
FUNDACIÓN VITAL FUNDAZIOA



1. 2019ko laguntza programa	3
2. Kultura eta Aisialdi arloa	3
Vital Fundazioa erakusketa-zentroa	3
Vital Fundazioa Kulturunea	6
Musika-jarduerak	7
Gure zinemaren alde egiten dugu	10
Antzerkia	13
Vital Arte Lehiaketa	13
Pintura	14
Argazkigintza	14
Magia	14
Liburuak eta komikiak	15
Poetak Maiatzean Jaialdia	15
Kultura ondarea	15
Etika	16
Vital Araban zehar	16
Jaibus Vital	16
+55 Kultura programak	17
Kultura arloko beste zenbait lankidetzak	18
3. Kirol arloa	18
Emakumezkoen Kirola Araban programa	18
Oinarrizko kirola eta kirol inklusiboa	19
Vital Euskadi Extrem	20
'Los Montes de Vitoria-Gasteizko Mendiak' XII. Lasterketa	20
Vitoria-Gasteiz Trail	21
Herri Lasterketen zirkuitua	21
Txikienentzako kirola	21
Kirol arloko beste zenbait lankidetzak	22
4. Gizarte Laguntza arloa	22
Berakah harrera-proiektua	22
Elikagaien Arabako Bankua	23
Jaiki Fundazioa	23
Gurutze Gorria	24
Gizarte bazterketaren aurkako beste zenbait proiektu	24
Araba minbiziaren aurkako borrokan	25
Gaixotasun mentalei eta endekapenezkoei laguntzea	26
Desgaitasunerako laguntza	27
Desgaitasunei, gaixotasunei edo gizarte bazterketa arriskuan daudenei lotuta diharduen elkarte-sarearentzako laguntza	27
Vitalquiler	29
+60 laguntza programak	29
5. Prestakuntza, Enplegu eta Ikerketa arloa	30
Hezkuntza programak	30
+55 prestakuntza programak	32
Lanbide Heziketa. Egibide	33
Bekak	34
Ikerketarako eta ekintzailentzarako laguntza	36
Enplegua eta laneratzea	38
6. Ondare eta Ingurumen arloa	40
Euskararako eta Euskal Kulturarako laguntza	40
Azokak eta merkatuak	41
Lurralde sustapena	43
Ingurumenarekiko konpromisoa	44
Animaliak artatzea	45
7. Vital Eguna	45

FUNDACIÓN FUNDAZIOA

Vital Fundazioaren sortze-xedea kultura sustatzea eta garatzea da, baita sustapen eta hedapen zientifiko, tekniko eta kirol arloko ere. Era berean, Fundazioak laguntza, gizarte, irakaskuntza, kultura, kirol eta adinekoren aldeko ekintza programak kudeatzen ditu, gure lurraldean erreferentziazko erakunde bilakatzeko helburuz.

1. 2019 laguntza-programa

Vital Fundazioak, bere helburu eta balioekin koherentzian, ikuspegi solidariotik eta gaur egungotik garatzen du bere gizarte ekintza, bertako biztanleen gizarte, ekonomia eta kultura garapena bultzatuz. Bere Plan Estrategikoan aurreikusitako helburuetako batek arabar guztien bizi-kalitatea hobetzera bideratutako proiektuei laguntza eta bultzada ematea aurreikusten du. Hori guztia gardentasuna, berdintasun baldintzetan parte hartzea, eta Arabako gizarte ehuneko erakunde guztien arteko lehia askea sustatzeko konpromiso sendoarekin batera.

2019an zehar, Vital Fundazioak **Arabako gizarterako laguntza-programa** abiarazi zuen berriz ere. Hiru deialdi-ren bidez, urtean zehar banatuta, otsailean, maiatzan eta irailean, **900.0000 euroko diru-laguntzak eman ziren, 242 proiektu bultzatzeko**. Hortaz, **jaso ziren eskaeren % 86** artatu ziren, hau da 282 eskaera. Emandako laguntza guztietatik, ehunekorik altuena, % 52, kulturarekin eta kirolarekin lotutako proiektuetara bideratu ziren eta 460.560 euro jaso zituzten; gizarte arloari, hezkuntzari eta enpleguari eta ikerketari lotutako proiektuak aurrekontuaren % 30 izan ziren eta 258.305 euro esleitu zitzaizkien; ondarearekin eta ingurumenarekin zerikusia duten proiektuek 161.071 euro lortu zituzten, eta onartutako proiektuen % 18 izan ziren

ARLOAK	ZENBATEKOAK	EHUNEKOA
Gizartea, Hezkuntza, Enplegua eta Ikerketa	258.305€	30%
Kultura eta Kirolak	460.560 €	52%
Ondarea eta Ingurumena	161.071€	18%
GUZTIRA	879.936	100%

Laguntza sorta berri horri esker, **Arabako 105 kolektibo berrik** eskuratu dituzte lehen aldiz Fundazioak eskaintako laguntzak.

Laguntzak emateko, **hautagaien ekimenak Vital Fundazioaren eta haren plan estrategikoaren xedearekin eta ikuspegiarekin bat etortzea baloratu zen**, euskararen erabilera, genero-berdintasuna, desberdinen gizarteratzea eta boluntarioritza bultzatzea, eta praktika berritzaileak eta kohesio eta eraldaketa sozialeko praktikak garatzea, besteak beste.

2. Kultura eta Aisialdi arloa

Vital Fundazioa erakusketa-zentroa

Vital Fundazioak 1.400 metro koadroko espazio zabala du Gasteizko Posta kaleko 13-15 zenbakian -erabat birbanatua eta modernizatua 2018an-, eta erakusketa gune garrantzitsua bihurtu da kulturaren zerbitzura, herrita-

rrek eta bisitariak goza dezaten.

Vital Fundazioaren erakusketa-zentroa hiru aretok eta elkargunea den harrera zabal batek osatzen dute. Espazioaren planoari begiratuz gero, behealdean, ekoizpen propioko erakusketa handiei eskainitako lehen areto bat ikusiko da. Beste biak neurri txikiagokoak dira, eta eskatzen duten artista ezagunei edo hasiberriei lagatzen zaizkie, hautaketa-prozesu bat igaro ondoren.

Vital Fundazioa erakusketa-zentroak **32 erakusketa** berriri ireki zizkien ateak 2019an, eta guztira **85.200 pertsonak** bisitatu zituzten

1 Aretoa

Zentroko espazio nagusia da. Urtean zehar 1. aretoan programatutako **bost erakusketek 66.727 lagun**en bisita jaso zuten. **‘Nola aldatu garen. 25 urteko eraztun berdea’** erakusketaren eskutik hasi zen urtea, 2018. urtearen amaieran inauguratua. Bertan, 80ko hamarkadan hiria inguratzen zuen obra-hondakinez betetako gerrikoaren bilakaera islatzen zen, gaur egun den nortasun-ezaugarriaraino iritsi arte. **Iñaki Andresek** egindako formatu handiko 22 argazkiez gain, mota guztietako material naturalak, hondakinak, txatarrak eta baita gaur egun bide berdea erabiltzen duten kirolariak irudikatzen zituzten hegazkinak, bizikletak eta manikiak ere izan ziren ikusgai. Urtarrilean hasi eta martxoaren 25era arte **17.775 lagun** joan ziren hura ikustera.

Maiatzaren hasieran **Eugenio Recuenco argazkilari madrildarraren ‘365°’** erakusketa inauguratu zen. Formatu handiko atzetik argizatutako argazkiek, urteko egun bakoitzeko bat, irudien argiak berak, aretoan zegoen bakarrak, ikuslea modu liluragarrian biltzen zuen erakusketa osatu zuten. Irudiek publikoarekin hiru mailatatik elkarrengaitan zuten: ‘Begiratzearen plazera’, ‘Ulertzearen poztasuna’ eta, azkenik, eragindako ‘ulermena eta erreakzioa’. Recuenco-k bere lana aurkezteko duen modu berezi horrek ez zituen hotz utzi gure aretoan egon zen ia bi hilabeteetan ikustera hurbildu ziren **17.593 bisitariak**.

Vitoria-Gasteizko lau artistaren arteko elkarriketa, belaunaldi eta estilo ezberdinetakoak, uztailaren erdialdetik urriaren hasierara arte egon zen ikusgai, **‘1-kuspegiak, lau begirada’** izenburu generikoaren pean. Juan Miegek, Miguel Gonzalez de San Romanek eta Koko Ricok, dagoeneko finkatuta dauden ibilbideak dituzten margolariak, Amaia Ugarterekin partekatu zuten espazioa, artista berria eta arte digitalaren ordezkaria. Horietako bakoitzaren obrekin batera bideo bat zegoen, non haiek lanean ikus zitezkeen, eta Antonio Altarriba idazle ezagunaren kontakizunak ere bai. Arabako lau artista horiek ikuspegi berri bat zabaldu ziguten beren obren bitartez, artera hurbiltzeko moduari eta haren adierazpide desberdinei buruz. **12.921 lagun**ek ikusi zuten erakusketa.

Urriaren amaieran, **Xabier Egaña** artistaren berrogeita hamar urtetik gorako ibilbideak erakusketa-zentroa hartu zuen **‘Bizitza ez da nahikoa’** erakusketaren bitartez. Aurretik inoiz erakutsi gabeko 65 piezaz osatutako aukeraketa zen, eta artistaren lanaren etapak erakutsi ziren, Bilboko itsasadarraren ondoan haurtzaroko lehen oroitzapenetatik hasita, frantziskotarren izpirituaren bizitza erlijiosoarekiko konpromisotik eta arte plastikoetan izan zuen irakaskuntzatik igarota. Teknika, material eta formatuetan ugaria eta askotarikoa den obra, gauzatzeko azkarra izateaz gain, aretoa asteburuetan hurbildu ziren bisitariak egiaztatu zuten, mural bat margotuz zuzenean lan egiten ikusteko. **8.303 bisita** izan zituen, nahiz eta denbora gutxi egon ikusgai.



Vital Fundazioko erakusketa-zentroko 1. aretoak Jostailuen bidez ehun urteko bidaia proposatzen zuen publiko guztiarentzako erakusketa baten eskutik agurtu zuen urtea. 1870 eta 1970 urte bitarteko fabrikatzaile garrantzitsuenen piezen aukeraketa bat, **‘100 urte, 100 jostailu’** izenburupean, garaiko jostailurik eskurazinenak eta liluragarrienak hartzen zituen: tren elektrikoak, motorrak eta autoak, garai guztietako panpinak eta jostailu mekanikoak. Txikienen sormena pizteko asmoz sortutako diseinu industrialeko bitxi horiek, **10.135 haur eta helduren** bisita jaso zuten zabalik egon zen iazko abenduko egunetan.

2 eta 3 Aretoak

Vital Fundazioaren erakusketa-zentroko beste bi aretoek Vitoria-Gasteizko bihotzean dagoen erakusketa-espazio zabala osatzen dute. 2019an zehar, eskaintza kultural zabala erakutsi diete areto biek ikusleei, artista ospetsuetatik hasi eta hasi berri direnetaraino, hainbat elkarteri lagatzeaz gain.

2. aretoa (Posta 13-15, 1. solairua). 1. aretoaren gainean dago, eta espazio zabala du hainbat jardueratarako eta erabateko irisgarritasuna, mugikortasun urriko pertsonentzako sarbidea bermatzen duen igogailu bati esker. Iaz, **10.042 pertsona** bildu ziren **13 erakusketatan**, eta margolanak ikusi ahal izan ziren, besteak beste, Blanca Abajo, Carmen Lecanda edo Susana Ferreirarenak; 2018ko Vital Arte Lehiaketaren irabazleenak; Iñaki Ormaechearen eskultura geometrikoak, etab.

3. Aretoa (Posta 13-15, beheko solairua). Inauguratu ondoren, areto honek erakusketa ugari hartu ditu, **14 guztira, 8.431 ikuslek** ikusi zituztenak. Horietako gehienak ONCE, Mundubat, Sancho el Sabio Fundazioa, Viphoto, Irudika edo EHU bezalako erakunde edo elkarte eta kolektiboei laga zitzaizkien.



Kordoi Etxea

Vital Fundazioaren egoitza den XV. mendeko eraikin gotiko-zibil adierazgarri honetan, Fundazioaren ondareko zenbait aleren erakusketa iraunkor bikaina dago: interes artistikoko altzariak, pinturak eta antzinako eskulturak, letoizko zirkulu formako iturriak (eskaleen plater izenez ere ezagunak direnak) eta hainbat jatorritako zeramikak. Erakusketa dorre-gotorlekuaren zulogunean dago eta jatorri anitzetako **19.643 bisitari** erakarri zituen, bertakoak, Espainiakoak eta nazioartekok.

Guztira, 147.460 pertsona etorri ziren gure erakusketa-guneetara, hau da, **% 4,21eko igoera** izan zen aurreko urtearekin alderatuta.



Erakusketak eta bisitariak 2019

ERAKUSKETA-GUNEA	ERAKUSKETA KOPURUA	BISITARI KOPURUA
Erakusketa-zentroa- 1. aretoa	5	66.727
Erakusketa-zentroa- 2. aretoa	13	10.042
Erakusketa-zentroa- 3. aretoa	14	8.431
Kordoi Etxea	1	19.643
Guztira	33	147.460

Vital Fundazioa Kulturunea

Vital Fundazioak Kultura Zentro berria du. **Vital Fundazioa Kulturunea** helbide berean (Bakea 5, Dendarabako 1. solairua, Vitoria-Gasteiz) erabilera anitzeko bi gune bildu eta berritzearen emaitza da. **A aretoa Fundazioak berak ekoiztutako kultura-eskaintza** ematen da, hala nola **Astearte Musikalen** ganbera-musikaren zikloa, **Ostiraleko** Kantaldietako kontzertuak, **Euskal Zinemaren Aste** eta **Euskal Zinema Dokumentalaren Aste** ospetsuak edo **Jazz Vital** kontzertu zikloa.

B aretoa azken teknologiaz hornitutako espazio modernoa da, eta haren ingurumen-ezaugarriak bat datoz erakundeak 2019an hartutako ingurumen-konpromisoarekin. Horrela, erabilitako materialak baso-ustiapen jasagarrietatik datoz, eta ehunek, olanek eta lurzoruek material birziklatuetan dute jatorria. Gainera, argiztapen guztia kontsumo minimoko LED da. **B aretoa Vital Fundazioaren prentsa areto ere bihurtu da.**



Beste kolektibo sozial, kultural, hezitzaile edo zientifiko batzuek aldizka antolatzen dituzten jarduerak osatzen dute bi aretoen programazioa, eta **Vital Fundazioak gune horien erabilera uzten die** irabazi-asmorik gabeko kultura ekitaldiak egiteko, hala nola hitzaldiak, antzerki-emanaldiak, errezitaldiak

2019an zehar, Vital Fundazioa Kulturuneak **318 jarduera** garatu ahal izateko laga zituen bere espazioak, bai propioak bai lagapenak, eta **42.617 pertsona** bertaratu ziren horietara.

VITAL FUNDAZIOA KULTURUNEA	JARDUERA KOPURUA	BERTARATU KOPURUA
A aretoa	189	30.803
B aretoa	129	11.814
GUZTIRA	318	42.617

LAGAPENEO K JARDUERAK	JARDUERA KOPURUA	BERTARATU KOPURUA
Kontzertuak	21	4.021
Hitzaldiak	147	15.074
Zinema eta ikus-entzunezkoak	54	6.811
Mendi Tour Vital	8	1.356
Antzerkia eta dantza	5	1.032
Abesbatzak	10	2.535
Beste lagapen batzuk	8	1.147
Guztira	253	31.976

FUNDAZIOAK ANTOLATUTAKO JARDUERAK	JARDUERA KOPURUA	BERTARATU KOPURUA
Astearte Musikalak	17	3.443
Ostiraletako kantaldiak	6	1.008
Gabonetako Kontzertuak	6	1.495
Jazz Vital	5	357
Euskal Zinemaren Astea	11	1.471
Euskal Zinema Dokumentalaren Astea	5	566
Ikus-entzunezkoak	8	881
Poesia	3	352
Magialdia	4	1.068
Guztira	65	10.641

Musika-jarduerak

Astearte Musikalen 30. urteurrena

Vital Fundazioak **Astearte Musikalen 30. urteurrena** ospatu zuen 2019an, ganbera-musikari eskainitako gunea, eta, urteen poderioz, lurraldeko musika-programazioan erreferente bihurtu da, bere kalitatea eta prestigioa direla eta.

30 urte hauetan, Astearte Musikalak funtsezko bi ardatzen artean ibili dira beti, kalitatea oinarri hartuta. Alde batetik, tokiko, estatuko eta nazioarteko artistak biltzen dituzten programazioak eraikitzen jakitea. Carlos Mena, Alfonso Gomez, Ara Malikian, Joaquin Palomares, Felix Lavilla, Jorge Cardoso, Alexander Kandelaki... besteak beste. Bestetik, gaztetasuna eta betieranotasuna biltzea, formatu desberdinen arteko beharrezko oreka bistatik galdu gabe, errepikapenean ez erortzeko. **150.000 ikuslek baino gehiagok** gozatu dute ziklo honetaz urte hauetan guztietan zehar.

Efemeride hori ospatzeko, **Carlos Mena gasteiztar kontratenorea izan zen** 2019-20 denboraldiko **inaugurazio kontzertuaren arduraduna**. Bere emanaldiak, Santa Maria kaperak eman zuenarekin batera, **70 konpositoreren piezaz** osatutako anbizio handiko egitarauari hasiera eman zion.



Vital Fundazioa Kulturuneak gure inguruko interprete gazteen, bakarlari ospetsuen, duoen, laukoteen, boskoteen eta nazioan zein nazioartean ospe handia duten orkestren errezitaldiak hartzen ditu asteartero.

2019an zehar, musika ziklo ospetsu horrek **17 kontzertu eskaini ditu**, eta **3.443 ganbera musikazalek** gozatu dituzte.

Ostiraletako Kantaldiak. Arabako abesbatzen musika

Abesbatzen musikak errotze handia du gure Lurraldean. Vital Fundazioaren Ostiraletako Kantaldiak programa lurraldeko haur-abesbatzei aukera bat emateko sortu zen, eta lurraldeko garrantzitsuentzat jotzen da. Bere antolakuntzan **Arabatxo-Arabako Haur Abesbatzen Elkartek laguntzen du..**

1.008 ikusle izan zituen Vital Fundazioa Kulturuneak eta Arabako hainbat eskola-nien ahotsekin gozatu ahal izan zutenba.

Olahots Olabide Ikastolako Gurasoen Abesbatzak ireki zuen **Ostiraletako Kantaldien XXI. edizioa**. Maiatzean eta ekainean NClic, Olabide Haur Abesbatza, Lumturi, Samaniego eta Olabide Abesbatzek eskaini zituzten **sei kantaldietatik** lehena izan zen.

Gainera, Vital Fundazioa Arabako Abesbatzen Elkarterekin lankidetzan aritu zen bere XXX. urteurrena ospatzeko. Arabako lurralde osoko hogeita hemeretzi abesbatzak osatzen dute aipatutako Elkarte hori.



EGOren talentu gaztea

Euskal Herriko Gazte Orkestrak (EGO) bi kontzertu (uda eta negua) aurkezten ditu urtero Arabako hiriburuan, lurralde honetan Vital Fundazioarekin duen lankidetzaz hitzarmenari esker. Lankidetzaz horri esker, taldeak urtean **bi topaketa sinfoniko** horiek abian jar ditzake Vital Fundazioa Kulturunean, eta gure lurraldeko instrumentista gazteentzat kalitatezko orkestra-musika prestakuntza bultzatuz.

Kontzertua eta irekita

‘Abierto por concierto/ Kontzertua eta irekita’ **Santa Maria Katedrala Fundazioak** Jazzargia Kultura Elkarterekin elkarlanean abian jarritako ekimena da, eta izen handiko musikariak eta musika estilo askotarikoak erakarri nahi dira tenplura. Ekainetik irailera bitartean bost kontzertu izan ziren katedralako elizpean, musika estilo askotakoak. Vital Fundazioak **10.000 euroekin** lagundu zuen, zaharberritutako espazioa erabiliz, tenplua diziplina anitzeko kultur gune gisa indartzeko ekimen hori.

Schubertiada Araba

Schubertiadaren bigarren edizioak, Franz Schubert musikagilearen musika ospatzeko sortutako ekitaldiak, bere lanez osatutako lau kontzertu eman zituen Tuesta eta Bachicaboko elizetan, Araban, uztailaren 6tik 27ra. **Gaubeako Udalak**, Bartzelonako Franz Schubert Elkartearen eskutik, maila handiko kontzertuak antolatu zituen uztailako lau larunbatetan. Vital Fundazioak **9.000 euroko ekarpena** egin zuen lurraldeko eremu hori kultura-jardueraz hornitzeko eta haren ondarea sustatzeko, zehazki, bertako eliza erromanikoak.

2019an, Vital Fundazioak **Euskadiko Orkestrari** laguntzeko lankidetzari ekin zion. Akordioak **10.000 euroko** laguntza aurreikusi zuen lehen urte honetarako

Jazz Vital



aldiz izan duen lankidetzaz. Erakundeak **10.000 € bideratu zituen Falerinako lorategietan** egin ziren **jazz-kontzertuetara**.

Vital Fundazioak beti izan du bere nortasun-ezaugarrien artean lurraldeko kulturarekin eta, bereziki, musikarekin lotutako ekimenak garatzea. Jazz Vital-ek bat egiten du eskaintza horrekin. **Jazz Vitalaren IV. edizioa** maiatzean zehar egin zen. Genero hori gustuko dutenentzako **bost kontzertu** eskaini zituzten, **Musikene-Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiko, Jesus Guridi Musika Kontserbatorioko eta Luis Aramburu Musika Eskolako** ikasleen eskutik.

Jazz musikaren barruan, nabarmentzekoa da Vital Fundazioak **Vitoria-Gasteizko Jazzaldiarekin** lehen

Osteguna Rock Festival

Rock musikak ere badu bere babesa Vital Fundazioaren aldetik. Horrela, ekainean, Vitoria-Gasteizko Andre Maria Zuriaren plazan Osteguna Rock Jaialdiaren edizio berri bat burutu zen, **Araña del Rock Kultur Elkartearen** eskutik, gure erakundearen laguntzaz. Los Brazos, The Amorettes eta Delenda Est taldeak aritu ziren Azkena Rockaren bezperan hiriko giroa berotzeko asmoz.

Midnight Boogie Weekend

Vital Fundazioak eta Helldoradok 'Midnight Boogie Weekend' jaialdiaren edizio berri bat antolatu zuten. **Soul eta R & B musikarekin** dagoen hitzordu horrek zuzeneko musika saioak eskaini zituen azaroaren 21etik 23ra bitartean, 'Get on up' filmaren emanaldia, James Brownen biografia Vital Fundazioa Kulturunean, Djen saioak eta liburu baten aurkezpena. Gainera, aurreko edizioetan bezala, Kordoi Etxea bi musika-tailerren agertoki bihurtu zen, estilo hori txikienei, hau da, 6 eta 12 urte bitarteko haurrei, hurbiltzeko.



Harria

Mulixka Dantza Taldearen, Iñaki Palaciosen musikaren eta Iñaki Perurenaren poesiaren elkarlanetik sortutako 'Harria' proiektua disko eta ikuskizun eran gauzatu zen, eta Vital Fundazioak lagundu egin zuen proiektu horietan. Irailaren 14an, larunbata, Vitoria-Gasteizko Foruen plazan 'Harria' ikuskizuna aurkeztu zen jendaurrean, dantza, zuzeneko musika eta narrazioa uztartzen dituen ikuskizun berritzailea..



Beste zenbait lankidetzak musikaren arloan

Vital Fundazioak musika-kulturarekin eta haren zabalkundearekin duen konpromisoa beste lankidetzak askotan ere agerian dago. Aipatzekoak dira, adibidez, **AIR-TISTEK Elkarte Artistiko Musikala, Gure Gazte Musika Eguna** garatzeko; **Sinkro Musika Elkarte**a, Vitoria-Gasteizko hainbat tokitan izan zen **'Bernaola Jaialdia'** burutzeko; **Operaren eta Zarzuelaren Arabako eta Gasteizko Lagunen Elkarte (AAVOZ)**, kantuko eta ahots-teknikako zenbait ikastaro garatzeko. **Ganbera Musikaren Lagunen Elkarte**a, **Vitoria-Gasteizko Nazioarteko XIV. Musika Jaialdia/Ikastaroa** egiteko eta abar.

Era berean, hainbat udalekin lankidetzan jarraitzen dugu, **Arabako Errioxako Organoaren II. Jaialdia** (Guardiako Kuadrilla) bezalako jarduerak abian jartzeko.

Gure zinemaren alde egiten dugu

Euskal Zinemaren Astea

Erreferente bihurturik, duela **35 urte** sortu zenetik etenik izan gabe, Euskal Zinemaren Astea topagune bat da urtero, non industria zinematografikoa eta publikoa elkarrekin bizi diren gure herrian egindako zinematik onenaren inguruan. Otsailaren 25etik martxoaren 2ra bitartean, **euskal profesionalak** iaz **zuzendu edo ekoiztutako** ekoizpen zinematografiko onenetako batzuk ikusteko eta saritzeko aukera izan zuten ikusleek.



Aukeratutako filmen kalitateak, **6 film laburrek eta 6 film luze**k, markatu dute 35. edizio hau, baina, batez ere, ikusleen arrakastak. Aretoak 'beteta' kartela eskegi du egunero alde aurretik saldutakoarekin baino ez, eta guztira 1.500 pertsona pasa dira Vital Fundazioa Kulturuneatik.



Hain zuzen ere, bertaratutako publikoak eman zion Euskal Zinemaren Asteko **film luze onenaren saria Paul Urkijo zuzendari gasteiztarren 'Errementari'** lanari, eta atzean utzi zituen hainbat film, esaterako Arantxa Echevarriaren 'Carmen y Lola', Igor Legarretaren 'Cuando dejes de quererme', Telmo Esnaolen 'Dantza' eta Koldo Almandozen 'Oreina'.

Bestalde, Gaizka Urrestiren 'Mi querido balón' filmak film labur onenaren saria eskuratu zuen aurtengo edizioan.

Aurten, Iñaki Dorronsoro zuzendari eta gidoilari gasteiztarrek jaso du **'Getako bat'** saria, urtero Arabako zinemako profesional garrantzitsu bat saritzen duena.

Euskal Zinema Dokumentalaren Astea

Euskal Zinema Dokumentalaren Asteak bost urte bete zituen 2019an, eta **euskal profesionalek zuzendutako dokumental onenen aukeraketa** erakutsi zion publikoari, baita solasaldi interesgarriak eskaini ere proiektzioen ondoren. Urriaren 21etik 25era bitartean, **euskal profesionalek zuzendutako lau film luze eta hiru film labur** proiektatu ziren, hainbat gai interesgarri buruzkoak: gastronomia, kultura, krisia, desgaitasuna, historia, etab.

Gaurkotasunak eta kalitateak protagonismoa eman zioten ziklo honen bosgarren edizioari. Jardunaldiak **dokumentalaren aurkezpenarekin** hasi ziren, **ondoren proiektzioari ekiteko** eta ikusleen parte-hartzea izan zuen ikusitakoari buruzko **solasaldi-eztabaida baten eskutik amaitzeko**.



'Cortada' film laburren jaialdia

Tokiko kultur ekimenei laguntzea eta haien progresioa partekatzeari garrantzitsua da Vital Fundazioarentzat. Horregatik, 2019an, berriz ere **UPV/EHUren Arabako Campusarekin** lankidetzan arituz **XXIII. edizioa** bete duen Film Laburren Jaialdia egiteko, eta erreferente gisa finkatu zen Euskal Herriko eta Estatuko zinema-lehiaketan egutegian formatu txikiko zinemaren esparruan. Espainiako Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiako Goya sarietarako eta EGEDAk, Espainiako ikus-entzunezko eskubideen kudeaketarako erakundeak, ematen dituen Forque sarietarako jaialdi kalifikatzailea da.

Aurkeztutako 1.279 film laburren artean aukeratutako 52 film laburren emanaldia eskaini zuen Cortada 2019k, abenduaren 11tik 14ra Vital Fundazioa Kulturunean. Mota guztietako publikoentzako lanak. Film labur apurtzaileetatik hasita, egile ausartagoen zineman bide berriak irekitzen dituztenak, genero lan konbentzionalagoekin uztartuta, tokian tokiko eta unibertsitateetik datozen proposamenak ahaztu gabe.



Gazte Film Fest

Vital Fundazioak, **Zinhezba eta KalakaLab kultura elkarteekin** batera, **Gaztefilm Festen hirugarren edizioa** antolatu zuen azaroaren 22tik abenduaren 1era bitartean, **18 urtetik beherako haur eta gazteentzako**. Areto komertzialetan eskaintzen ez diren filmen aukeraketaz gozatzeko aukera ematen du lehiaketa horrek, eta, entretenimenduaz harago, pentsamendu kritikoa eta balioen garapena sustatzen ditu.

Programazioak haurrentzako sail bat, gazteentzako beste bat, zinema tailerrak edo Norman McLaren zinemagi-learn omenezko haurrentzako kontzertu handi bat izan zituen.

Iaz bezala, 'Neskatoek eta mutikoek egindako zinema' atala sartu zuen. Berrikuntza gisa, Gaztefilm Festek **Kanada** izan zuen gonbidatu solasaldi eta hitzaldietan. Hamahiru ikastetxetako 2.000 kidek baino gehiagok hartu zuten parte.

Vital Fundazioa Mendi Tour-a

Vital Fundazioa Kulturunean **Vital Fundazioa Mendi Tour-aren zazpigarren edizioa** egin zen martxoaren 4tik 8ra. Bilbao Mendi Film Festivalen eskutik heldu den zine ziklo honek mendiko, muturreko kiroltako, abenturako eta naturako zazpi film onenekin gozatzeko aukera eman zien bertaratutakoei. **1.336 pertsona** joan ziren VFKra.

Gainera, mendi tradizio handiko Arabako bi herriek ere hartu zuten Mendi Tour zirkuitua Vital Fundazioaren eskutik: **Amurriok** martxoaren 15ean, eta **Agurainek** apirilaren 25ean.



APIKA Ikus-entzunezko Ekoizle Burujabeen Arabako Elkarte

Vital Fundazioa APIKArekin lankidetzan ari da **Arabako Zinema Dokumentala Meeting Point** egiteko. Topaketa hori **dokumentalak sortzeko prozesuan dauden Arabako profesionalak** eta zinema dokumentala barrutik eza-gutzeko interesa duten pertsona guztiei zuzenduta dago.

Mahai-inguruen eta hitzaldien bidez, kulturen eta industrian parte hartzen duen sektore horri balioa eman eta ezagutzera eman nahi da, baita Arabako ikus-entzunezko ekoizpenaren munduan lan- eta harreman-sare bat sortu ere.

a.

Atzerkia

Paraíso Antzokia

Duela 25 urtetik, Paraíso Antzokiak, haur eta gazteentzako antzerki-sorkuntzarako zentroa den aldetik, Vitoria-Gasteizko Beñat-Etxepare haur eta gazteentzako Antzerki-Aretoaren kultura- eta hezkuntza-proiektua egiten du.

Vital Fundazioak, Paraíso Antzokiarekin batera, **Vital Antzerki programa** bultzatzen du, familian antzerkian jolastea. Cristóbal Balenciaga euskal jostunaren lana berrinterpretatzen zuen 'Ehuna' esperientzia eszenikoan parte hartu zuten 3 eta 5 urte bitarteko haurren familietan jarduera artistikoak bultzatzeko antzerki-programazioa.

2019an, erakundeak **15.700 € erabili zituen** 'Ehuna' ikuskizuna garatzeko eta **'Kultur Vital, kulturarekin haziz'** sustatzeko. Ekimen hori **'POCTEFA' proiektu europarraren** barruan kokatzen da, eta haur eta gazteen hezkuntza artistiko eta kultura alfabetatze programa berri bat ezartzen du

Ortzai Kultura Elkartea



Ortzai Kultura Elkartek, abenduan eta urtarrilean zehar, **Oscar Wilderen 'De profundis' bakarrizketa** eraman zuen Lurraldeko lau herritarra. **Iker Ortiz de Zarate aktore eta zuzendaria** arduratu zen idazle britainiar-irlandarraren testu poetikoa taularatzeaz, Vital Fundazioaren egoitzan, Kordoi Etxean, estreinatu zela hamar urte bete zirenean.


Obrak mundu osoan zehar bidaiatu du, eta behin baino gehiagotan birjarri da Vitoria-Gasteizen arrakasta handiz; **Guardian, Agurainen, Murgian eta Artziniegan** antzeztu zen. Vital Fundazioak 9.000 euroko babesia eman zion proiektu horri, eta **Arabako landa-eremuko lau puntutan kultura garatzen laguntzeko** balio izan zuen, normalean ez baitute horrelako proposamenik.

Arte Vital Lehiaketa

Vital Fundazioak Vital Arte Lehiaketaren laugarren ediziorako deialdia egin zuen, **lurraldeko artearen adierazle berriei** ezagutzera emateko aukera emateko. **Guztira 132 lan** aurkeztu ziren, guztiak originalak, argitaratu gabeak eta gai eta teknika librekoak.

Lan horietako laurogei baino gehiago pintura kategorian sartu ziren, 19 eskulturen, 17 argazkigintzan eta 14 lanek beste teknika artistiko batzuen alde egin zuten.

1.500 euroko hiru sari eman ziren. Diru-kopuruaz gain, sariak barne hartzen zuen, halaber, Vital Fundazioak saritutako obren egileei erakusketa-areto bat lagatzea, hurrengo urtean erakusketa bateratu bat egiteko.



Parte-hartzearen gorakadak eta aurkeztutako lanen kalitate handiak Vital Arte Lehiaketa sendotu dute. 2019an **132 artista arabarrek** hartu dute parte

Pintura

Vital Fundazioak aurten ere lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuen **Ormandetxa Kultur Elkartearekin, 9.000 eurokoa**, hainbat kultura-jarduera garatzeko. Lankidetza hori 2014an hasi zen, 'Bizitzarako pinturak' mural-lana sustatzeko elkartea eratu zenean, **Xabier Egaña margolariari** lotutako pertsona talde bati esker. Pertsona horiek artista horren obra sustatu, zabaldu eta ikusarazi nahi zuten, Forondako Antezana elizako hormetatik 400 metro koadro baino gehiago apaindu baitzituen, salaketatik itxaropena doazen irudiz osatuak.

2019an, guztira **1.033 pertsona** joan ziren 'Transzendentzia oihartzunak' eta 'Abesbatza kontzertuak' bertan egiten diren bi kultura zikloak ikustera. Horrez gain, 27 taldek **bisita gidatuak** eskatu zituzten eliza zaharberritu ondoren martxan jarritako programaren barruan.

Argazkigintza

Arabako Argazkilari Elkarateak Vital Fundazioaren partaidetza izan du ia hasieratik, **Argazkilaritza Astelehenak** egiteko, **argazkigintzako profesionalekin egindako topaketak eta publiko orokorrari irekiak**.

2011n, **Viphoto** Argazki Azoka antolatzen hasi ziren. 2018an, jaialdi bihurtu zen, eta tinko babesten da, argazkigintzaren inguruko ideiak trukatzeko lekua baita. **Viphoto Jaialdiaren** bigarren edizioak **erakusketa, hitzaldi, tailer, eztabaida mahai eta proiektzio egitaraua garatu zuen** hiriko hainbat espaziotan. Vital Fundazioak **10.000€** jarri zituen.

Magia

Vital Fundazioa Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Magia Jaialdiarekin (**Magialdia**) duela urte batzuk hasi zen lotzen, lankidetza-hitzarmenen bidez eta erakundearen kultura-guneak lagata. Izan ere, bere egoitza, Kordoi Etxea, bere egoitza, **'Hurbileko magia ibilbideak Alde Zaharretik'** eszenatokietako bat da.

Jaialdiaren **31. Edizioan**, Vital Fundazioa Kulturunea hainbat ikuskizunen egoitza bihurtu zen: **'Vital Fundazioa Haur Magiaren Gala'**, 'Magia Solidarioaren Gala', Alberto de Figueiredoren 'Kartak mahai gainean' hurbileko magia pertsona bakarreko ikuskizuna eta Anthony Blake Magoaren 'Pentsamendu konfidentzialak' helduentzako proposamena. **Guztira 1.068 ikusle** joan ziren saioetara.

Vital Fundazioaren laguntza **MagialdiAraba** programara ere bideratu da. Bosgarren edizioan (irailaren 1etik 15era) ilusioa eta magia eraman zituen **Arabako 15 udalerritara**, euskarazko eta gaztelaniazko mago profesionalen tailer, animazio eta ikuskizunak euskaraz eta gaztelaniaz. **902 arabarrek** gozatu ahal izan zuten programa honetaz, eta berrikuntza ere ekarri zuen, adinekoei zuzendutako magia tailerrak.



Liburuak eta komikiak

Arabako Liburu Saltzaileen Azoka

Arabako Liburu Saltzaileek antolatutako **Liburuaren Egunaren III. Azoka** Vitoria-Gasteizen izan zen maiatzaren 24tik ekainaren 2ra bitartean. Sei liburu dende (Zuloa, Elkar, Casa del Libro, Anegon, El Corte Inglés eta Ayala) **17 etxola** egokitu zituzten **Urrezko Zeledonon plazan**, eta hori literaturarako gun e bihurtu zen.

Azokak Vital Fundazioaren laguntza garrantzitsua du, eta, gainera, aldi berean beste zenbait jarduera ere egin ziren, hala nola hitzaldiak, ipuin kontalariak, liburuen aurkezpenak eta sinadurak.

Irudika

Irudika Ilustrazioaren Nazioarteko profesionalen Topaketa urriaren 24tik 26ra egin zen Artiumen, eta bertan Ilustrazio arloko Estatu osoko eta atzerriko (Norvegia, Frantzia, Italia eta Ingalaterra) profesionalak egon ziren, tailer, hitzordu eta hitzaldietan parte hartu ahal izateko helburuz.



Euskadiko Ilustratzaileen Elkartearen ekimen horrek **11.000 €-ko** laguntza jaso zuen Vital Fundaziotik, eta bere Erakusketa Zentroko areto bat lagata ere parte hartu zuen. Bertan, Angoulême-ko La Maison des Auteurs, Bilbaoarte eta Arabako hiriburuko Lanbide Zentroaren artean hiru hilabeteko **egonaldi artistikoan** egin-dako ilustratzaile gazteen proiektu pertsonalak ikusi ahal izan ziren.

‘Poetak maiatzean’ Jaialdia

Hunkitu Arte elkarteak, bere sortzaile eta zuzendari den Elisa Rueda poetaren eskutik, ‘Poetas en mayo - Poetak maiatzean’ nazioarteko poesia jaialdia antolatzen du duela 7 urtetik hona, Araban poesia zabaltzeko asmoari jarraiki. Poesia gizarteko geruza guztietara hurbiltzeko ahalegin handia egiten da, kaleetan, saltokietan, antzokietan, museoetan, lorategietan eta baita tranbian ere errezitaldiak eginez. **Maiatzaren 8tik 30era bitartean 500 poetak baino gehiagok hartu zuten parte.**

VII. edizio honetan, Vital Fundazioa Fundazioak **jaialdia Arabako Lurralde Historikora eramaten** lagundu zuen, zehazki hamabi herritara: Oion, Maeztu, Gesaltza Añana, Burgelu, Agurain, Amurrio, Gopegi, Guardia, Araia, Izarra, Orbiso eta Legutio.

Kultura ondarea

Sans Soleil Kultura Elkarteak Erdi Aroko Araba proiektua garatzen du Vital Fundazioaren laguntzarekin. ‘Ondare irekia’ ekimenak **Arabako ondarearen datu-base bat sortu nahi du, munduko edozein leku-tatik eskuragarri egongo dena Internet bidez**, baita monumentuaren oinean ere, horretarako jarritako QR plaka edo bereizgarri eker. Formatu horri eker, fitxa oso bat eskura daiteke, informazio historiko-artistiko eguneratua duena eta 360ºko argazki, bideo eta abar ere bai.

2019an, **Donejakue bidea Araban** proiektuaren bigarren fasea egin da, eta arrakastaz amaitu da. Aurten bertan, Hagaburu Elkarteak izena hartu du Elkarteak.



Urriaren azken astearen eta azaroaren lehenaren artean Vitoria-Gasteizen egiten den **Zakatumba-Heriotzaren Kulturaren Jaialdian** ere parte hartzen du Vital Fundazioak.

Etika

Euskadiko Etika Klusterra Fundazioa gizartearen esparru guztietan jokabide etikoak, balio etikoak eta moralarekin bat datozen pertsonen jarduerak eta jarrerak sustatzen dituen erakundea da, etikaren inguruko ikasketa-eta hausnarketa-zentroen elkarlana eta lankidetzaz bultzatuz. Vital Fundazioa Etika Klusterrarekin lankidetzan ari da 2015ean sortu zenetik.

Aurten, Etika Klusterra Fundazioak **Lidergo Etikoaren II. Kongresua** aurkeztu zuen urriaren 7an Villa Suso Jauregian, eta **Etika eta Komunikabideak** izan zituen hizpide. Komunikabideetako filosofo, profesional eta zuzendariak, etikaren esparruko beste pertsona esanguratsu batzuek gain, printzipio etikoak komunikazio profesionalaren esparru guztietan benetan presente dauden aztertu zuten.

Klusterrak **Oinarrizko Etikari buruzko ikastaro** berri bat antolatu zuen, eta Etika Foroak hainbat gairi buruzko **hiru hitzaldi** aurkeztu zituen: Zenbat eta zaharrago, orduan eta etikoago?; Etika eta poesia; eta Ingurumenaren Etika



Uda kulturalak Vital Araban zehar programaren eskutik

Beste urte batez, Vital Fundazioak kultura eta entretenimendua Arabako geografiako puntu guztietara hurbildu zituen udako hilabeteetan, Arabako udalerrietarako, askotan, eskuragarria ez den kultura programazioa.

Vital Araban zehar programaren XV. edizioak 18.034 parte-hartzaile izan zituen joan den udan, eta **ehun bat jardueratan** hartu dute parte. Musika taldeen emanaldiak, abesbatzen errezitaldiak, antzerki emanaldiak edo dantza eta ballet erakustaldiak hiru hilabetez baino gehiagoz eman diote forma **Arabako 62 herritako eta 2 Trebiñuko Konderriko beste biko** kultura programazioari.

Jaibus Vital. Dibertsio gorena, zero arrisku



lurraldeko 20 herritako jaietara, eta beste **265**, larunbatean, abuztuak 4, Vitoria-Gasteizko **Andre Maria Zuria-**ren ospakizunetara hurbildu zituzten.

Jaibus Vital garraio zerbitzuak **hogeigarren denboraldia** bete du uda honetan, Arabako gazteei lurraldeko jaietara modu seguruan joateko aukera eskainiz.

Ekainaren 15etik urriaren 5era bitartean, Vital Fundazioak autobus-flota handi bat jarri zuen errepidean, eta, horri esker, **15 urtetik gorako 2.587 gaztek** aukera izan zuten programan sartutako **21 herrietako** jaietara joateko.

63 autobuseko flota batek **2.322 gazte** eraman zituen

Kultura programak

Vital Fundazioak kultura-, kirol- eta aisialdi-ekintzak sustatzen ditu, zehazki eginak 55 urtetik gorako pertsonentzat. Kultura gozatzeko eta biztanleria-segmentu horretarako jolas- eta prestakuntza-jarduerak sustatzeko ekimenak. Urte osoan **2.932 pertsonak** hartu dute parte proposatutako jardueraren batean.

Kultur jardueren eskaintza guztiaren artean, mendi-ibiliak izan dira arrakastarik handiena izan dutenak, batez ere Arabak egindakoak, 1.200 lagunek hartu baitute parte. Aipatzekoak dira, halaber, **hitzaldi eta zineforum zikloak**, edo lurraldean zehar egindako **irteera kulturalak**.

Aurten berriz eskaini dira topaketa filosofikoak eta etika gela.

PROGRAMA SOZIO-KUTURALAK +55	
POESIA JARDUERAK	42
NAZIOARTEKO BERRIAK AZTERTZEKO KLUBA	90
POESIA KLUBA	14
POP ABESBATza	40
HItzaLDIAK ETA ZINEFORUMA	331
MUSIKA	26
PETANKA	45
IRTEERA KUTURALAK	367
IBILBIDEAK ERAZTUN BERDETIK	651
IBILBIDEAK ARABATIK	1.200
ETIKA GELA	18
TOPAKETA FILOSOFIKOAK	108
ERABILTZAILEAK OROTARA	2.932



Kultura arloko beste zenbait lankidetzak

Altraste Dantza dantza garaikideko elkartearekin, Arabako arte eszenikoetako profesionalak prestatzeko **‘DantzAraba 2019’** proiektua garatzeko.

Urtean zehar, beste hitzarmen batzuk ere sinatu ziren Lurraldeko zazpi kuadrilletako kultur elkarte ugariarekin, kultura zabaltzen laguntzeko. **Kultura-hitzarmenen** artean, nabarmentzekoak dira Europako Sustraiak Kultura Elkartearekin, “Gasteizko Bataila 1813” Elkarte Historikoarekin, Eskualdeetako Etxeekin edo Audioko, Amurrioko, Kanpezuko edo Navaridaseko udalekin sinatutakoak, kultura jarduerak sustatzeko, baita Urizaharreko, Arratzua-Ubarrundiako, Artziniegako, Guardiako, Lantarongo, Maeztuko eta Iruña Okako udalekin edo Arabako Errioxako Koadrila, Aialako Koadrila, Kanpezuko Koadrila, Aialako Koadrilarekin sinatutakoak ere, besteak beste.

Nabarmentzekoa da, halaber, Gasteizko Udalak bultzatutako 16 eta 30 urte bitarteko gazteentzako aisialdi alternatibo eta osasungarriko **Gauekoak** programari emandako laguntza.

3. Kirol arloa

Emakumezkoen Kirola Araban 2018-2022

Vital Fundazioak Emakumezkoen Kirola Araban ‘Bai, bai nahi dut’ asmo handiko programa garatzen jarraitzen du. 2018an hasi zen eta bost urteko indarraldia izango du, kirolaren arloan nesken eta mutilen arteko berdintasuna lortzen laguntzeko helburuari jarraiki.

Programa horrek emakumeak kirol arloan ahalduntzea du helburu, berdintasuna lortzen laguntzea eta emakume kirolarien oinarri bat sortzea. Programa lau proiektutan banatuta dago, eta Araban bizi diren edo bertan kirola egiten duten 9 eta 16 urte bitarteko neskei zuzenduta dago. Hainbat alderdi jorratzen dituzte: eskola-kirola, kaleko ekintzak, gizarte-kontzientziak eta prestakuntza.

Hasieratik hainbat ekintza egin dira, besteak beste, futbol- eta saskibaloitxapelketak, kirolariekin saioak lurraldeko ikastetxeetan eta teknifikazio-bekak.

Honako hauek dira urtean zehar burututako jarduerak:

Emakumezkoen hiru kirol-campus. Agurain izan zen bi txandatan egin zuten futbol campus-eko eszenatokia, uztailaren 1etik 5era eta 8tik 12ra. Eskubaloiko eta errugbiko campusak uztailaren 1etik 5era bitartean izan ziren Lakua Merkataritza Zentroan, Vitoria-Gasteizen. 160 neskek hartu zuten parte guztira 3 campusetan.

Maiatzaren 5eko torneoak: Futbola, saskibaloia 3x3, eskubaloia eta euskal pilota. 52 taldek parte hartu zuten. Guztira 205 neska.

Esgrima, sokatira, karate eta errugbi master-klaseak lurraldeko ikastetxeetan. 2018/2019 ikasturtean 59 masterklase eta 28 gehiago eman ziren 2019/2020 ikasturtean (lehenengo hiruhilekoan).

Bederatzi arbitraje-saio sei futbol klubetan. Guztira 102 neskek hartu zuten parte.

Bai Mendian jardunaldia azaroaren 9an egin zen, Andre Maria Zuriaren plazan kokatu zen karpa garden batean. 173 parte-hartzaile bildu ziren emakumea eta mendi-kirolei buruzko lehen jardunaldian. Emakumezko hizlari eta kirolariekin hartu zuten parte, naturarekiko harremanarekin lotutako modalitateetan erreferenteak.

Vital Fundazioa’ emakumezkoen eskualdeko futbol liga: emakumez erabat osatutako 13 taldek hartu zuten parte.



Programa honen helburua da emakumeek parte har dezatela kirol-klubetako estamentu guztietan (jokalariak ez ezik, zuzendari, entrenatzaile, prestatzaile fisiko ... izan daitezen). Aldaketa horrek emakumezkoen profila kirolean erabat integratzea ekarriko luke, berdintasuna ahalbidetuz.

Oinarritzko kirola eta kirol inklusiboa

Oinarritzko kirola

Vital Fundazioaren beste jarduera-ildoetako bat oinarritzko kirola da, oso tresna baliagarria jarduera fisikoa, ohitura osasungarriak eta gazteen arteko adiskidetasun edo berdintasun balioak sustatzeko.

Vital Fundazioak **30 hitzarmen** inguru sinatu ditu gazteen artean jarduera fisikoa sustatzeko: futbol klubak (Langraiz, San Martin, Ariznabarra, Zaramaga, San Ignacio, Luzerna Arabako Errioxako Futbol Kluba edo Zaramaga); txirrindularitza (Arabako Txirrindularitza Federazioa, Zuyano, Peña Ciclista Durana edo Arabarrak); atletismoa (La Blanca edo Club Atletismo Laudio); saskibaloia (Araski, Araberri); gimnasia (Arabako Gimnasia Federazioa, Oskitxo eta Supraritmika Gimnasia Klubak, Kirol Gimnasiako Mayuelua). Gainera, Gasteiz mendiko kluba, Eharialde emakumezkoen eskubaloia kluba, Gasteizko Tennis kluba, Boleiboleko Ekhitarrak, Waterpolo Lautada kluba eta bere federazio guztiak oinarritzko kirolaren sustapenean, lurraldeko beste kolektibo batzuen artean.

Kirol inklusiboa

Vital Fundazioa kirol inklusiboan berdintasunaren balioak sustatzen saiatzen da, eta bere harri-koskorra ekar-tzen, kirola eta bizitza pixkanaka espazio bakar eta inklusibo bihurtzeko.

2000. urteaz geroztik, Vital Fundazioaren laguntza zuzena dago **Zuzenak Fundazioarentzat**, Zuzenak - Vital Fundazioa gorpil-aulkiko saskibaloiko taldeari emandako laguntzaren bidez. Talde hori proiektuaren alderik ikusgarriena den arren, bere kirol arrakastak direla eta, gainontzeko diziplinek, errugbia, txirrindularitza, olinpiar tiroa, mahai-tenisa, badmintona, padela, motokrosa eta bere sentsibilizazio kanpainen ere, **35.000 euroko** ekarpenetik dagokiena hartzen dute. Hitzarmen horrek Kirol Egokituaren Eskola garatzeko aukera ematen dio Zuzenak Fundazioari, 25 haurrentzako proiektua, hain zuzen ere.

Errugbi Eskola bat eta **Errugbi talde inklusibo** bat dituen kluba da **Gaztedi Rugby Taldea**. Vital Fundazioak kirolaren praktika sustatzeko lan hori babesten du, lankidetzahitzarmen baten bidez, Down sindromea duten pertsonen gaitasunak hobetzeko eta pertsona horiek gizarteratzeko bide bat da-eta.

Era berean, fundazioak gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden gazteentzako beste gizarteratze-programa batzuk babesten ditu, hala nola **Arabako Boxeo Federazioarekin** sinatutakoa, erakunde horrek ere emakumeentzako sentsibilizazio-ekintzak garatzen baititu, genero-berdintasunari eta autodefentsari dagokienez.

2019an, **9.000 euroko** laguntza eman zitzaion **Mendi Solidarioak Elkarteari**, elkarteak furgoneta bat erostea ahalbidetu zuen **'Lau gorpil inklusioaren alde'** izeneko proiektuari laguntzeko. Aldi berean, Vital Fundazioak **"Ametsak bete"** programarekin lankidetzan jarraitu du. Programa horrek aniztasun funtzionala duten pertso-nei mendia hurbiltzea du helburu eta amets horiek bete daitezkeen boluntario berriak prestatzea ere bai.



Vital Euskadi Extrem

Ekainaren 1ean eta 2an egin zen Vital Euskadi Extrem-BH lasterketaren hamargarren edizioa.

Martxa zikloturista horrek mendiko bizikletaren bostehun zale baino gehiago bildu zituen, eta Vitoria-Gasteiz eta Bastida herriak elkartu zituen.

Euskadi Extrem Txirrindulari Klubak antolatu zuen, Vital Fundazioa laguntzaile nagusi zuelarik, eta aurtengo probak bi jardunaldiko jatorrizko formatuari eutsi zion.

Lehenengo jardunaldirako 100 kilometroko ibilbide erakargarria diseinatu zen, Vitoria-Gasteizen hasi eta Bastidara iristeko Aiurdin, Armikelo, San Formerio eta Portillatik igaro ondoren, besteak beste. **Bigarren etapa**, Bastidan hasi eta amaitu zena, **57 kilometroko** ibilbidea izan zen, non Herrera eta Toloño gainek aldeak ezarri zituzten, iritsieratik gertu zeuden kilometroak edizioko berezienak zirelarik.




Vital Fundazioak **23.000 euroko** ekarpena egin zuen proba tradizional hori garatzeko eta helmuga eremuan kultura-jarduerak egiteko (Javier Ruiz de Larrinagari omenaldia, kontzertuak, tokiko produktuen dastatzeak, etab.).

‘Los Montes de Vitoria-Gasteizko Mendiak’ XII. Lasterketa

Izenak berak dioenez, mendi lasterketa honen helburua mendilerro honen profila marrazten duten tontor guztiak zeharkatzea da. **62 kilometro** inguru, **guztira ia sei mila metroko desnibela**, Vitoria-Gasteiz ia ibilbide osoan bistatik galdu gabe.

Ekainaren 15ean, larunbata, mendi-ibilaldi handi honen XII. edizioa burutu zen, **Manuel Iradier Txangolari Elkar-teak** Vital Fundazioaren laguntzaz antolatua. Proba oso gogorra da, egun bakarrean egiten baita, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatuko mendiko lehiaketarik ezagunenetako bat bilakatu da. Aurten **1.113 atletak** hartu zuten parte, **955 gizonezko** eta **158 emakumezko**. Azpimarratzekoa da **emakumeen kopuruak gora egin duela**, aurreko edizioan baino ia **% 40 gehiago**.

Ibilbidea osatzen lehen 100 pertsonen modu automatikoan lortu zuten dortsal bat, 2020an jokatu den ‘Hiru haundiak’ lasterketan parte hartzeko.



Vitoria-Gasteiz Trail

Gasteizko Mendiak protagonista izan ziren berriz ere udazkenean, irailaren 29an burutu zen Vitoria-Gasteiz Trail lasterketaren hamabigarren edizioako partaideak hartzean. **Vital Fundazioaren babes**a du probak, eta bi distantzian jokatu zen: **bata 16 kilometrokoa eta bestea 26koa**.

Hiriaren erdigunetik irten ostean, lasterketak Eratzun Berdea zeharkatzen du, Armen-tiako Parkean sartzen da, eta, ondoren, Vitoria-Gasteizko Mendien eremura iristen da. Proba horrek berriz ere parte-hartze marka bat lortu zuen. **693 izena emanda**, mendiko lasterketetan erreferente izaten jarraitzen du, eta Euskal Herriko lehen parte hartze postuetan dago.



Herri lasterketen zirkuitua

Atletismo herrikoiak jarraipen handieneko kirol-ekitaldietako batean jarri zuen arreta, hau da, Arabako Herri Lasterketen Zirkuituan- **Vital Fundazioa saria**. Aurtengoa hamalagarren edizioa izan da.

La Blanca klubak antolatu zuen eta martxotik ekainera bitartean egin ziren **zazpi probaz** osatuta egon zen: Lantziegoko 14. Herri Lasterketa, Vitoria-Gasteizko Pasealekuetako 21. Herri Lasterketa, Navaridaseko Batzar Nagusietako 18. Lasterketa, Kanpezuko 14. Herri Lasterketa, Zuiako 14. Herri Lasterketa, 14. Araia Krosa eta, azkenik, Roberto Ruizen Omenezko 2. Lasterketa. Vital Fundazioa berriz ere izan zen erakunde laguntzaile nagusia, **11.000 euro** inguruko ekarpenaz, 2018ko edizioaren aldeko apustua egin eta 2017an egin ezin izan zen zirkuitua berreskuratu ondoren.

Txikienentzako kirola

Ironkids

IRONMAN, Arabako hiriburuan lehen aldiz antolatu zen kirol-probaren ekitaldien barruan, Vital Fundazioak IRONKIDS izeneko **atletismo-proba** bultzatu zuen, **3 eta 16 urte bitarteko haurrentzat**.

Lasterketa herrikoia izan zen eta etxeko txikienek izan zituen protagonista. Uztailaren 13an, **IRON-MAN proba egin baino egun bat lehenago**, Floridako Parkean, goizeko 10etatik aurrera, lasterketa egin zen eta egin beharreko distantzia parte-hartzaileen adinaren arabera izan zen.



Segurtasun arrazoiak zirela-eta, gehienez **1.000 parte-hartzaile** kopurua ezarri ziren. Korrikalari txiki bakoitzak domina bana jaso zuen.

Martín Fiz Txiki maratonia

Txikienentzako lasterketa espezifikoaren artean, maiatzaren 12an Vitoria-Gasteizen egin zen **Martin Fiz Txiki Maratoiaren** garapenaren aldeko apustua egitea erabaki zuen Vital Fundazioak.

Txiki Copa

Otsailaren 28tik martxoaren 3ra bitartean, Vitoria-Gasteiz Estatuko emakumezkoen saskibaloiairen epizentroa izan zen. Arabako hiriburuan **Erreginareen Kopa** ospatzeak kirol horren zalez bete zuen hiria. Vital Fundazioak eginkizun garrantzitsua jokatu zuen ekitaldi horretan, **Txiki Kopari** emandako laguntza nagusiari esker. Bertan, **haurren kategoriako hamahiru taldek eta 150 jokalarik** hartu zuten parte, **emakumezkoen saskibaloiko** Dia Ligan parte hartzen duten klubak harrobian sartuta.



Vital Fundazioak, gainera, 3.000 euro eman zizkien Arabako emakumezkoen saskibaloiko klubei, materialez eta ekipamenduz hornitzeko. Kopuru hori **Fan Zon** delakoan Saskibaloiko Erreginareen Kopan egindako jarduera solidarioetatik sortu zen.

Kirol arloko beste zenbait lankidetzak

Vital Fundazioak lankidetzak hitzarmen bat sinatu zuen **Vitoria-Gasteizko Udalarekin eta haren Kiroletako Udal Zerbitzuarekin**, kirol-jardueraren sustapenean helburu komunak lortzea ahalbidetzen duten kirol-jarduerak garatu eta abian jartzeko, batez ere oinarritzko kirolaren barruan eta, oro har, herritarren artean, baita jarduera horretarako beharrezkoak diren instalazioak mantentzeko ere. Horretarako, **40.000 euro** bideratuko ditu erakundeak.

Kirol hitzarmenen artean, duten garrantziagatik, **Manuel Iradier Txangolari Elkartearekin, Gasteizko Mendi Klubarekin, Araberri Saskibaloi Klubarekin, Arabako Eskubaloi Federazioarekin eta Artzain Txakurren Elkartarekin (Arate)** sinatutakoak nabarmentzen dira, besteak beste.

2019an, **Gesto Deportiborekin** dugun lankidetzak hasi zen, kirol-lehiaketetan eta eskola-adinean kiroltasuna hobetzea eta indarkeria prebenitzea helburu duen **Deportivity Clubes** programa aplikatzeko. 4 taldek eta guztira 187 haurrek hartu zuten parte esperientzia horretan.

4. Gizarte Laguntza arloa

Berakah harrera proiektua

Berakah zailtasunak dituzten eta baliabide ekonomikorik ez duten **pertsonei eta senideei harrera egiteko eta laguntzeko programa** da, eta haien oinarritzko eta berehalako premiei irtenbidea ematera bideratuta dago.

2009an sortu zen Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoko Pastoral Unitatearen ekimenez (Santa Maria, San Bizente, San Migel eta San Pedro). Berakah proiektuak **boluntarioen lanaz** burutzen ditu bere jarduerak, bestelako langilerik gabe. Gaur egun, **250 pertsona** baino gehiago ari dira beren denbora, ahalegina eta ekarpen ekonomikoak egiten zenbait kasutan, modu desinteresatuan, San Vicenteko Karitateko Alabekin lankidetzan.

Oinarritzko arazoak konpondu ondoren, erabiltzaileei gizarteratzen laguntzea da helburua, normaltasunez sar daitezzen edo lehendik dauden laguntza instituzionalen sarearen bidez arreta jaso dezaten.

Vital Fundazioak **151.000 euroko** laguntza ematen du, bere jarduera eta programen artean banatzeko: entzute aktiboa eta errukiorra, oinarritzko elikadura, lege-aholkularitza, laguntza psikologikoa, prestakuntza eta autoenpleguan aholkularitza, mikro-kredituak ematea, etxebizitza-gaietan bitartekotza egitea, boluntarioen prestakuntza, kaleko taldeak, familia-harrera, aisialdiko eta eskola-laguntzako taldeak, gaztelaniako eskolak, arropategia, etab.

Vital Fundazioaren **151.000 euroko** ekarpena elikagaiak banatzera bideratzen da gehienbat, **110.000 euro**. Zuzeneko laguntzek (hautxoak, botikak, etab.) **20.000 €-ko** laguntza dute; materialerako eta prestakuntza-jardueretarako laguntzek **10.000 €** dira, eta mantentze-lanetarako eta administrazioarako laguntzek **11.000€**.

Zugaz jantokiak 21.563 janari-anoa banatu zituen, egunean batez beste 122, eta 87 umeri gosariak eman dizkie astero, eta beste 35i askariak egunero.

Ain Karem etxea, amentzako eta seme-alabentzako egoitzak 23 emakume eta haien hogeita hamar haur artatu zituen; **Belen etxeak**, familientzako egoitzak, 108 pertsona jaso zituen, eta 32 familia gehiagori lagundu zien etxebizitza bilatzen.

Vital Fundazioarekin sinatutako hitzarmenari esker, Berakah-k **'Tabgha' Despentsa Solidarioari** eutsi ahal izan dio. Produktuak merkatuko prezioan ordaintzen dituzten herritarrak modu solidarioan erosteko ekimen horren bidez, familia askok elikagaiak eta oinarritzko produktuak prezio txikiagoan eros ditzakete, haien diru-sarreraren arabera. **'Despentsa Solidarioaren Makinaren'** proiektuarekin jarraitzen du. Makina horri esker, euro bakar batetik aurrera, pertsona behartsuenei janaria ematen zaie, emandako elikagaiaren irudia duen pakete baten truke.



Elikagaien Arabako Bankua

Elikagaien Arabako Bankua 1998ko martxoaren 16an eratu zen, laguntza-zentroei eta kolektibo marjinaleri elikagai-soberakinak doan bildu, biltegiratu eta banatzeko. Guztira, **53 elkarterekin** ari dira lankidetzan, **4.710 pertsonari** erantzunez.



Vital Fundazioak urtero berritzen du duela 19 urtetik Elikagaien Bankuarekin duen lankidetzatza. 2019an, **10.000 euroko** ohiko ekarpenaz gain, beste **15.000 euroko** aparteko ekarpena berritu zen Jundizko pabiloian erabilera anitzeko areto bat ziurtatzeko, bisitatzen dituzten eta prestakuntzak egiten dituzten kolektiboei harrera egiteko.

Bankuak azaroan lurraldeko supermerkatuetan egiten duen **elikagai bilketa handian** ere laguntzen du erakundeak, eta aurten **160.000 kilo janari** eta **55.000 euroren** balioko txartelak bildu dituzte. Bere apalak **215.000 kilo**

janari eta behar handiko beste produktu batzuekin bete ziren.

Jeiki Fundazioa

Jeiki Fundazioa ongintzazko laguntza-erakundea da, eta Araban **droga-mendekotasunen arloan** egiten du lan, prebentzio-, laguntza- eta gizarteratze-programen bidez.

Vital Fundazioak laguntza ematen die **HARRERA eta HAZGARRI** ekimenei, eta, funtsean, diagnostiko- eta prebentzio-programak dira, eta **59.500 €** bideratu dira horietara. HARRERA zerbitzuak lehen informazio-elkarriketak kudeatzen ditu tratamendu-eskaerari dagokionez, egoitzan izan daiteke edo anbulatorioan. Urtean zehar 137 drogazalek eta 70 familiak jaso zuten programa honen bidezko laguntza.

Bestalde, HAZGARRI adikzioak prebenitzeko beste programa bat da, gazteei, nerabeei, gurasoei eta profesionalei zuzendua, prebentzio unibertsalaren, selektiboaren eta adieraziaren mailetan lan egiten duena. Tailer, ikastaro eta aholkularitza-hitzaldien bidez, 159 gazteri eta neraberi, guraso programako 116 familiari eta, Esku-hartze Komunitarioko Proiektuari dagokionez, 454 gazteri, 37 gurasori eta 38 gizarte-eragileri eman zitzaizen arreta.

Gurutze Gorria

Vital Fundazioak Gurutze Gorriaren aldeko apustuari eutsi dio, **egoera oso ahulean dauden pertsonen** laguntzeko urtean zehar **12.000 euroko** ekarpena egin baitu Vitoria-Gasteizen gauzatzen ari den proiektu honetan laguntzeko. Proiektua 30 eta 65 urte bitarteko pertsonen zuzenduta dago, baldin eta honako programaren batean artatuak izan badira: Gizarte Larrialdietarako Unitatea, 'Aurrezki bonoa' eta/edo elikagaiak jasotzeko programa.

Jarduera-eremu guztien artean, honako hauek nabarmentzen dira: osasun-sistemari lotutako eskubide, izapide eta baliabideei buruzko orientazioa eta aholkularitza, gizarte-baliabideak eta/edo baliabide komunitarioak, laguntza psikologikoa eskaintzea edo esku-hartze plan indibidualizatuak egitea. Modu horretan, muturreko zaurgarritasun egoeren isolamendua eta kronifikazioa saihesten saiatzen dira, batez ere etorkinen artean.

Gizarte bazterketaren aurkako beste zenbait proiektu

Gure erakundeak bazterkeria-arazoak dituzten pertsonen gizarteratzearen alde lan egiten duten elkarteak garatzen dituzten beste programa batzuk babesten ditu.

Horregatik, **INSOLA elkartearekin** lankidetzatza-hitzarmen bat bultzatu da, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako **'Aldi baterako etxebizitzak'** programarekin jarraitzeko. Vital Fundazioak **10.000 euro** bideratu ditu **lau etxebizitza** lagatzeko, INSOLAREN tailerretatik igaro ondoren gizarteratzeko eta laneratzeko gaitasuna erakutsi duten **hamar pertsona hartzeko**, emantzipatzeko adinera iritsi direlako, droga-mendekotasuneko ohi-turetatik modu seguruan atera direlako edo DSBE (Diru sarrerak bermatzeko errenta) edo GLL (Gizarte larrialdietarako laguntzak) jasotzeko utzi diotelako eta gizarteratzeko arrazoizko denbora behar dutelako.

SECRETARIADO GITANO Fundazioa, emakume ijitoen aukera-berdintasuna eta integrazio soziolaborala sustatzeko eta askotariko diskriminazioa artatzeko **Calí Programa** kudeatzen duena. Vital Fundazioak proiektu horri ematen dion **9.000 euroko** laguntzak emakume ijitoen segmentu espezifiko bat estaltzeko aukera ematen du, hau da, egoera oso ahulean daudenak, gizarte-bazterketako egoeran dauden emakumeen profilekin lan egiten duten beste erakunde batzuen zerbitzu eta baliabide publikoak eta ekimen eta programak iristen ez zaizkien emakumeen kasua.

Haurren eskubideen defentsa eta sustapenaren alde lan egiten duen **SAVE THE CHILDREN** gobernuz kanpoko erakundeak **haurren pobrezia-aren aurka borrokatzeko programa** bat du, pobrezia eta gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden haurren bizi-baldintzak hobetzeko. Save The Children-en ustez, kalitatezko hezkuntzarako sarbidea (formala eta ez-formala) pobrezia "hereditarioaren" zirkulua hausteko tresna da.

Vital Fundazioaren laguntza funtsezkoa da lankidetzatza-hitzarmenak sinatzen dituzten **laguntza-izaerako 80 elkarte baino gehiago** mantentzeko

Horregatik, **'Haurrei arreta emateko gizarte- eta hezkuntza-proiektua, eskola-arrakasta, aisialdia eta astialdia sustatzeko'** bultzatu dute, eskola-porrota, arrisku-jokabideak, lan-horizonterik eza, marjinazioa eta abar arintzeko eta, horrela, adingabeen aurkako indarkeria saihesteko.

Vitoria-Gasteizko Pilar eta Aldave auzoetako 6 eta 12 urte bitarteko 215 haurrak eta haien familiak izan dira aurten Vital Fundazioak emandako **8.000 euro** jaso dituztenak.

Era berean, **AGLE Elkartearekin** sinatutako hitzarmena berritu da. Hitzarmen horren helburu nagusietako bat guraso bakarreko familiei, immigrantei eta genero-indarkeriaren biktimei arreta eta sustapen soziala eta pertsonala ematea da, gai sozial eta pertsonaletan gidatuz.

Guztira **6.000 euro** eman ditu **Loremaitea** programara bideratutako erakundeak, hau da, baliabide ekonomiko nahikorik eta gizarte-laguntzako sarrerik ez duten **guraso bakarreko familietako adingabeei laguntzeko** zerbitzura, gurasoen lan- edo prestakuntza-ordutegiarekin bat datozen ordutegi-tarteetan, beste zerbitzu normalizatu batzuek estaltzen ez dituztenetan. 2019an, 128 adingabe zituzten 96 familia artatu ziren.

Araba minbiziaren aurkako borrokanr

AECC

Minbiziaren aurkako borroka gaixotasuna normalizatzea eta herritarrak prebentzio-neurriei buruz sentsibilizatzea eskatzen du. Vital Fundazioa aspalditik ari da lankidetzan **Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartearen Arabako** atalarekin, sinatzen duten hitzarmenaren bidez. Aurten, **22.000 euroko** ekarpena egin da **Minbiziaren Aurkako Martxak** eta **Ongintzako Kontzertu** bat egiteko.

Urriaren **6an Minbiziaren Aurkako V. Ibilaldia** egin zen **Vitoria-Gasteizen**, Arabako AECCrekin lankidetzan aritu nahi dutenentzat lehiarik gabeko proba. Gainera, beste hiru martxa ere egin ziren, **Amurrión, Agurainen eta Oionen**, irailaren 29an, urriaren 12an eta urriaren 27an, hurrenez hurren.

Era berean, Vital Fundazioa AECCrekin elkarlanean aritu zen **musika klasikoko ongintzako kontzertu bat** antolatzen, abenduaren 29an, eta biolin eta piano Delibes duoa izan zuen protagonista. Ekitaldi guztien bilketa Nafarroako Unibertsitatearen **gibeleko minbiziari buruzko ikerketa** proiektu batera bideratu zen oso-osorik.



ASAMMA

Erakundearen babesa ezinbestekoa izan zen urriaren 20an **Bularreko Minbiziaren Aurkako I. Elkartasun Lasterketa** egiteko Vitoria-Gasteizen, **Bularreko eta Ginekologiako Minbizia duten Emakumeen Arabako Elkartek** antolatuta, gaixotasunaz kontzientziatzeko eta normalizatzeke eta ikerketa sustatzeko dirua biltzeko.



Aldi berean, hitzarmen baten bidez, eskuzko masaje linfatikoko programa fisioterapeutiko bat eta emozioak berreskuratzeko programa bat babesten ditugu, bizi-kalitatea eta egokitzapena hobetzeko, bai kaltetutako pertsonarena, bai haren familia-ingurune kideena.

‘LAU TEILATU’ elkartasunez, ASPANAFOAren alde

Vital Fundazioak **ASPANAFOA Minbizia duten Haurren Gurasoen Arabako Elkartearekin** duen lankidetzaz hitzarmenaz gain, erakundeak bat egin zuen herritarrekin, haurren minbiziaren aurka borrokatzeko erronka batean.

EITBk antolatutako hogeigarren **elkartasun maratoiaren** baitan, Vital Fundazioak dei egin zien herritarrei urriaren 1ean, igandean, Itoiz taldearen abestiaren bertsio onena eta solidarioena abesteko.

Horrelako ekitaldi sozial baten aurrean sortzen diren itzaropen guztiak gainditu zituen ekimenak. **15.000 lagun** inguru bildu ziren Andre Mari Zuriaren plazan, haurren minbiziaren aurka borrokatzeko, Ahotsak programako abesbatza finalistek lagunduta.



Vital Fundazioak euro bat eman zuen bertaratu zen pertsona bakoitzeko. Lortutako 15.000 euroak haurren minbiziaren aurkako ikerketa baliabide gehiagoz hornitzeko erabili ziren

Gaixotasun mentalei eta endekapenezkoei laguntzea

ASAFES

ASAFES, Gaixotasun Mentala duten Pertsonen eta Senideen Arabako Elkartearen helburua da gaixotasun mentala duten pertsonentzako eta haien familientzako bizitza-proiektu integrala eta indibidualizatua bideragarri egitea. Helburuak integrazio- eta normalizazio-etorkizun batera bideratuta daude, pertsona horien bizi-kalitatea hobetzeko.

Vital Fundazioak laguntza ematen dio elkarteari, haiekin urtero sinatzen duen hitzarmenaren bidez. 2019an, aurkeztutako **19.000 euroak** honako hauetarako erabili ziren: gaikuntza psikosozialeko zentroan sukaldea erosi eta instalatzeko; Enplegu Zentro Bereziko ‘Langileentzako prestakuntza-programa’ garatzeko; ‘Gaixotasun mentalaren alde ibiliz’ gizarte-sentsibilizazioko kanpaina zabaltzeko; eta ‘Kaskarina’ aldizkaria argitaratzeko.

AFARABA

Alzheimerra duten Pertsonen Senide eta Lagunen Arabako Elkartearen misioa da kalitatezko arretara bideratutako kontzientziazio soziala eta instituzionala sustatzea, programak eta zerbitzuak sortuz, Alzheimerra eta beste dementsia batzuk dituzten pertsonen eta haien senide eta zaintzaileen ongizatean laguntzeko.

Vital Fundazioarekin sinatutako hitzarmenari esker, **15.000 euro** bideratu ahal izan zituzten tableta eta berrikuntza teknologikoko beste gailu batzuk erosteko, tratamendu espezifikoetarako, eta hitzaldi, ikastaro, jardunaldi eta tailerren zikloak antolatzeko, gaixoen eta senideen aisialdirako eta denbora liberarako. Baita biztanleak Alzheimerrari buruz sentsibilizatzea eta horren berri ematea ere.

—— AEMAR eta ¡Mójate! – Busti Zaitetz!

Vital Fundazioak lankidetzaz hitzarmena du urtero **AEMAR Arabako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartearekin**. Laguntzaren portzentajerik handiena **Busti Zaitetz!** kanpainara bideratzen da. Elkartasunezko eta gizarte-sentsibilizazioeko ekintza bat da, ekimen horretara atxikitako Euskal Herriko igerileku eta hondartzetan egiten dena, eta nahi duten pertsona guztiek libre eta doan parte har dezakete. Araban hainbat dira “bustitzen” diren herriak: Vitoria-Gasteiz, Araia eta Agurain. ‘Mójate-Busti Zaitetz’ ekimenaren XXII. edizioaren ekitaldi nagusia Estadio Fundazioaren instalazioetan izan zen.

Aurten, gainera, Vital Fundazioak aintzat hartu zuen AEMAREk egindako eskaera, pazienteek fisioterapia jaso ahal izateko **BOBATH ohatila berria erosteari** buruzkoa

Desgaitasunerako laguntza

—— EGINAREN EGINEZ

EGINAREN EGINEZ, Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Arabako Elkartearen helburua da desgaitasun fisikoa duten pertsonak gizartearen esparru guztietan gizarteratzera bideratutako lana koordinatzea.

Vital Fundazioaren **10.000 euroko** laguntza komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpaina jarraitzea bideratu da, **‘EZ DUT IKUSEZINA IZAN NAHI’** lelopean, herritar guztiei zuzenduta, dibertsitate funtzionala duten emakumeek **beren desgaitasun fisikoko/dibertsitate funtzionaleko egoeragatik eta generoagatik diskriminazio bikoitza** jasaten dutela ‘ikusarazteko’

—— ASPACE

ASPACE-ARABA, Garuneko Paralisia eta Antzeko Asalduren Elkartea 1989an sortu zuen beren eskubideak defendatzeko eta beren beharrei erantzuteko sentsibilizatutako familia talde batek. 1993az geroztik, Vital Fundazioa etengabe ari da ASPACEekin elkarlanean hainbat proiekturen garapenean.

2019an, **10.000 euroko** ekarpena ASPACE aldizkariaren bidezko komunikazio- eta hedapen-programara, oso kaltetutako pertsonentzako tailerretara eta haurren, gazteen eta helduen udalekuak barne hartzen dituen aisialdiko eta denbora libreko programara bideratu zen.

Elkarteak **‘ASPACE Kirol Klubari laguntza emateko proiektua’** aurkeztu zuen, Vital Fundazioak abiarazi zuen bigarren laguntza deialdian. Erakundeak beste 5.000 euro bideratu zituen aipatutako proiektua garatzeko.

Desgaitasunei, gaixotasunei edo gizarte bazterketa arriskuan daudenei lotuta diharduen elkarte-sarearentzako laguntza

Ekitaldi honetan zehar, beste 60 lankidetzaz hitzarmen gehiago formalizatu dira hainbat arazoren eraginpean dauden zenbait pertsona-kolektiborekin; horien artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

1. AAE (Epilepsiaren Arabako Elkarte)
2. AAL (Laringektomizatuen Arabako Elkarte)
3. ACABE (Anorexia eta Bulimiaren Aurkako Arabako Elkarte)
4. ACCU ARABA (Crohn eta Kolitis Ultzeraduna duten Gaixoen Arabako Elkarte)
5. ADALAVA (Diabetikoen Arabako Elkarte)
6. ADAP (Preso dauden Pertsonen laguntzeko Elkarte)
7. ADELA (Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Elkartearen Federazioa)
8. ADEAR (Artritis Erreumatoide eta Espondilitis Gaixoen Arabako Elkarte)
9. ADELES (Lupus gaixoen Arabako Elkarte)
10. ADELPRISE (Linfedema Primarioa eta Sekundarioa dutenen Arabako Elkarte)

11. AEFAT (Ataxia Telangiectasia Familiaren Espainiako Elkarte)
12. AI LAKET!! (Gazteen lonjen erabilera ludikoari lotutako arriskuak murrizteko elkarte)
13. ALCER (Giltzurruneko Gaixotasunen Aurka Borrokatzeko Arabako Elkarte)
14. AMAPASE (Ama eta Aita Bananduen Arabako Elkarte)
15. APDEMA (Adimen Degaitasuna duten Pertsonen aldeko Arabako Elkarte)
16. ARABAKO GORRAK (Arabako Pertsona Gorren Elkarte)
17. ARABARNE (Hezkuntza-premia Bereziak dituzten Haurren Gurasoen Elkarte)
18. ARENE (Gaixo Neuromuskularren Arabako Elkarte)
19. ARESBI (Arantza Bifidoa eta Hidrozefaliaren Arabako Elkarte)
20. ARNASA ARABA (Fibrosi Kistikoaren Arabako elkarte)
21. ASAFIMA (Fibromialgia eta Fatiga Kronikoaren Sindromearen Arabako Elkarte)
22. ASASAM (Gaixo Psikikoen eta Senideen Arabako Elkarte)
23. ASCUDEAN (Adinekoak Zaintzen dituzten Senideen Elkarte)
24. ARABAKO BAKELEKUA ELKARTEA (Kanpamendu sahararretan errefuxiatua dauden haurren aldeko elkarte)
25. AUTISMO ARABA ELKARTEA (Autismoaren eta garapeneko beste nahaste batzuen Arabako elkarte)
26. BIDEGURUTzeA ELKARTEA (Gizarte-bazterketako Arazoak Dituzten Pertsonen Harrera Elkarte)
27. BORONDATE ONEKO ELKARTEA (Baztertutako Taldeei Laguntzeko Elkarte)
28. GIZARTERAKO ELKARTEA (Emakume prostituentzako abegia eta orientazioa)
29. GURE BIDEA ELKARTEA (Gizarteratzeko elkarte)
30. KOKUK ELKARTEA (Gizarte eta Hezkuntzako Esku-hartze Elkarte)
31. PRESTATURIK ELKARTEA (Atzerriko profesionalen Arabako Elkarte)
32. SAGRADA FAMILIA CHERNOBIL ELKARTEA (Chernobileko haurren abegirako familien elkarte)
33. IKIRIKI ELKARTE SOZIOKULTURALA (Ongizate psikosoziala eta animaliekiko eta naturarekiko elkarlarragina sustatzeko elkarte)
34. TALUR ELKARTEA (Degaitasun intelektuala duten pertsonen aisialdi eta denbora librerako elkarte)
35. ZUBIA GURUTzatzeN ELKARTEA (Gizarteratzeko eta laneratzeko tailerrak egiteko elkarte eta ekimen etxea)
36. AISIALDIRAKO KARMELDARREN ELKARTEA
37. ASOPARA (Parkinson Araba Elkarte)
38. ASPASOR (Gorren gurasoen eta lagunen Arabako elkarte)
39. ATECE (Hartutako Kalte Zerebralaren Arabako Elkarte)
40. ELIZBARRUTIKO CARITAS (Gasteizko Elizbarrutiko Caritas)
41. MUGARIK GABEKO BIHOTza (Gaixo kardiobaskularren eta euren familien bizi-kalitatea hobetzeko elkarte)
42. DOWN ARABA ISABEL ORBE (Down Syndromearen Isabel Orbe Arabako Elkarte)
43. EZEBA (Zeliakoen eta Zeliakoen Familien Arabako Elkarte)
44. FEVAPAS FEDERAZIOA (Gorren Gurasoen eta Lagunen Elkarte Euskadiko Federazioa)
45. ADSIS FUNDAZIOA (Gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa eta inklusiboagoa eraikitze fundazioa)
46. AYUDA EN ACCIÓN FUNDAZIOA (Pobrezia eta Desberdintasunen Aurka Borrokatzen duen Elkarte)
47. CORAZONISTAS FUNDAZIOA (Heziketarako, sentsibilizaziorako eta garapenerako nazioarteko lankidetzarako fundazioa)
48. ITAKA ESKOLAPIOAK FUNDAZIOA
49. JEIKI FUNDAZIOA (Droga-mendekotasuna duten eta gaintzeko bidean dauden pertsonen fundazioa)
50. BEROA TUTOREtza FUNDAZIOA (Gaixo mentalen Arabako tutoretza fundazioa)
51. USOA TUTOREtza FUNDAZIOA (degaitasun intelektuala duten eta babesgabezia egoeran dauden pertsonen tutoretza fundazioa)
52. GIZABIDEA (Presoen defentsarako elkarte)
53. GUREAK ARABA (Degaituentzako Enplegu Zentro Berezia)
54. HAR-EMAN (Degaitasun intelektuala duten pertsonen gizarteratzea sustatzeko elkarte)
55. HOGAR ALAVÉS (Hogar Alavés Elkarte, gaixotasun mentala duten pertsonen errehabilitaziorako)
56. MATRIOSHKHA (Hizkuntza eta Kultura Errusiarraren Arabako Haur Elkarte)
57. ONCE (Itsuen Erakunde Nazionala Araban)
58. SIDALAVA (Ihesaren aurkako Arabako Herriarren Batzordea)
59. TEL-EUSKADI (Hizkuntzaren Nahasmendu Espezifikoaren duten Pertsonen Senideen eta Lagunen Elkarte)
60. ITXAROPENAREN TELEFONOA (Itxaropenaren eta adiskidetasunaren telefonoaren Arabako elkarte)

Vitalquiler

Vitalquiler programa aitzindaria da, gizarte-izaera sakonekoa, **etxebizitza bat izateko zailtasunak dituzten pertsonentzat**. 2001. urtean abian jarri zen, une horretan Vitoria-Gasteizen arrazoizko prezioaren truke alokairuan zegoen etxebizitza-eskaintza eskasari erantzuteko.

Hasiera batean, proiektuaren xedea Arabako gazteek gurasoen etxetik joateko zuten beharrari erantzutea zen, diruz lagundutako alokairuak eskainiz, lan-merkatura finkatzen ziren bitartean. Hala ere, gizartearen bilakae-rak eta haien etxebizitza-beharrek programa herritar guztiei zabaltzea ekarri zuten, adin-mugarik gabe. Vitalquiler programak baldintza hauek eskaintzen dizkie errentariei:

- Adin nagusikoa edo emantzipatuta dagoen adingabea izatea
- Etxebizitzarik ez izatea
- Euskal Autonomia erkidegoan errolatuta egotea
- 3.000 eta 39.000 euro arteko diru-sarrerak izatea (kide bateko familia-unitateak)

Abenduaren 31n Vitalquiler-ek **869 etxebizitza** zituen. Guztira **402.247,63 euroko diru-laguntzak** aplikatu ziren. Vitalquiler-eko errentariek ordaindutako urteko batez besteko errenta 5.731,56 eurokoa izan zen eta urteko batez besteko diru-laguntza 477,63 eurokoa eta okupazio maila % 98,82koa.

+60 laguntza programak

Vital Fundazioak diru-laguntzak eta aholkularitza eskaintzen ditu 60 urtetik gorako pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta haien autonomia errazteko. 2002tik martxan dagoen **‘Bainugelak egokitzeko programari’** esker, eskatzaileek beren etxebizitzetan egokitzapen integraleko obrak egin ditzakete, bainuontziak dutxatzeko platerekin ordeztuz eta manpara egokituak eta laguntza-elementuak instalatuz.

Programa abian jarri zenetik 2.731 eskaera jaso dira guztira, eta horietatik **2.339 obra amaituta daude abenduaren 31n**. Vitoria-Gasteizen 1.927 jarduera egin dira, eta Arabako gainerako herrietan 412.

2019an, adinekoek beraiek eskatuta, **‘Audifonoak erosteko edo hortz-tratamendu funtzionalak egiteko laguntza-programa’** jarri da abian. Beren errentaren arabera, 60 urtetik gorakoek era horretan egin diezaiekete aurre horrelako artikuluek dakartzaten kostuei.



+60 LAGUNTZA PROGRAMAK	ESKAERAK	DIRU-LAGUNTZAK
Bainugelak Egokitzeko Programa	49	75.000 €
Audifono eta Hortz Tratamenduen Programa	203	99.300 €
Guztira 2019	252	174.300 €

5. Hezkuntza, Prestakuntza, Enplegu eta Ikerketa arloa

Hezkuntza Programak

‘Har ezazu kontrola’ hezkuntza digitala

Internetek, sare sozialek, smartphone-k eta teknologia berriek, oro har, onarpen eta ezarpen aldi azkarra izan dute gizartean. Gaur egun, mundu guztiak erabiltzen du teknologia hori, baina ez dago teknologia hori erabiltzeak dakartzan arriskuen eta ondorioen ezagutzarik, ezta teknologia hori behar bezala erabiltzeko prestakuntzarik ere.

Vital Fundazioak, arrisku horretaz jabetuta, **‘Har ezazu kontrola’** proiektu berritzailea garatzearen aldeko apustua egin du, Julen Linazasoro adituaren laguntzarekin. Aditu horrek 10 urtetik gorako esperientzia du hezkuntzaren arloan. Hitzaldi eta tailerren bidez, DBHko ikasleek, gurasoek eta irakasleek **teknologia kontzienteago erabil dezaten eta segurtasuneko oinarritzko jarraibideak bete ditzaten** lortu nahi da.



Prestakuntza doakoa da, eta euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez ematen da, ikastetxeen lehenetaz araberak. Horrela, ikasleak gai dira Interneten dauden arrisku ohikoak identifikatzeko, behar bezala babesteko eta horiei aurrea hartzeko jarraibideak betetzeko. Bestalde, gurasoek adingabeak eremu digitalean hezteko jarraibide gomendagarriak ezagutuko dituzte; irakasleek, berriz, ikastetxeko informazio digitala babesten ikasiko dute, helduentzako eta adingabeentzako sare sozialen arriskuak zeintzuk diren, nola prebenitu eta teknologia erabiltzeak osasunerako dituen arriskuak, baita ingurumenarekin duen lotura ere.

Programa horretara **66.000 euro baino gehiago** bideratu dira lehen urte honetan zehar.

Genero indarkeria prebenitzeko kanpaina

2002. urteaz geroztik, Vital Fundazioak eta **Gurutze Gorriak** kanpaina bat garatu dute, helburu hauekin: gazteak gizarte-arazo horri buruz sentsibilizatzea, **bikote-harremanetan indarkeriazko eta osasungabeko jokabideak prebenitzea, eta herritarrak, oro har, kontzientziaztea emakumeen aurka erabilitako indarkeria sistematikokoari buruz.**

Kanpaina Arabako bigarren hezkuntzako 15-18 urteko ikasleei zuzenduta dago, eta parte hartzeko lan-teknikak erabiltzen ditu. Horietan, ikasleek agerian uzten dituzte desberdintasun-harremanek eragiten dizkieten sentimenduak, eta jokabide-alternatibak proposatzen dituzte. Parte-hartzaile bakoitzaren eta taldearen esperientziatik abiatuz, haien hausnarketak kontuan hartuz, elkarriketa, entzutea eta eztabaida sustatuz eta haien jarrerari alternatibak eskainiz, ikaskuntza mota hori errazten da. Ekitaldi horretan, Vital Fundazioak **44.000 euro** jarri zituen gazteen artean genero-indarkeria prebenitzeko apustua berritzeko. Abian jarri zenetik, **28.000 ikaslek** baino gehiagok hartu dute parte proiektu horretan.

‘Gazteen artean’ HIESa eta Sexualitatea ikasgeletan

2000. urtean Vital Fundazioak eta **Arabako Hiesaren Aurkako Herritarren Batzordeak** Arabako ikastetxeetan **‘Hiesa eta sexualitatea ikasgeletan’** sentsibilizazio programa ezartzea erabaki zuten.

Programa honek sexualitateari eta GIB bidezko infekzioari buruzko informazio zorrotza eta objektiboa eskaintzen die gure lurraldeko 14 eta 19 urte bitarteko gazteei. Ikastetxeetako eztabaiden eta lan-tailerren bidez, gaixotasunaren alderdi garrantzitsuenak transmititu nahi dira, eta kutsatutako pertsonenganako beldur justifikaezina ezabatu, haiekiko errespetua sustatuz. Era berean, sexualitatearen ezagutza zabala eta positiboa erraztu nahi du, antisorgailuei eta sexu-jokabide seguruei buruzko hausnarketaren eta informazioaren bidez.

‘ASEXORATE’ ekimenari ere eutsi zaio, mugikorreko linea batean arreta emateko aukera ematen baitu, gazteek **kontsultak whatsapp bidez** egin ahal izan ditzaten; horrela, erantzuna berehalakoa izango dela bermatuko da.

Aurten **Arabako 37 ikastetxetako 2.228 nerabe** eta gaztek parte hartu dute. Kanpaina martxan jarri zenetik, **36.000 gazte baino gehiagorengana** iritsi da programa.

‘Bihotza Eskola’

Gaixotasunak prebenitzea eta ezagutzea da Vital Fundazioak ikasleentzat babesten duen beste hezkuntza-proiektuetako bat. **Mugarik Gabeko Bihotza Elkartearekin** batera bultzatutako ekimena DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleei zuzenduta dago, bihotz-biriketako bizkortzeari eta desfibriladoreen erabilerari buruzko oinarritzko ezagutzak eskura ditzaten. Gaixotasun kardiobaskularren prebentzioari buruzko dibulgaziozko hitzaldiak ere ematen dira.

Vital Fundazioak ‘Bihotza Eskola’ programara bideratutako **25.000 euroei** esker, eskola publikoetako, pribatuetako eta itunpeko eskoletako **1.575 ikasle** bizitzak salbatzeko teknika eraginkorrez jabetu ziren.

Gazteentzako heziketa emozionala. Awake-Gasteiz

Vital Fundazioa lankidetzan ari da **Awake-Gasteiz** elkartearekin, 16 eta 22 urte bitarteko **neska-mutilen heziketa emozionala sustatzen duen** proiektu batean, bizipen-tailerren bidez, beren berezko gaitasunak eta bertuteak ezagutzen lagunduz eta, horrela, beren helburuak eta ahaleginak bideratzen lagunduz, sormenez eta osotasunean garatzeko.

Ikastaroa urritik maiatzera bitartean egin zen, eta hiru tailer multzotan banatu zen, helburu eta asmo desberdinekin: ‘Autoezagutza’, ‘Garapen pertsonala eta lidergoa balioetan’ eta, azkenik, ‘Bizi-proposamena eta bokazio profesionala’.

Ikastaroak doakoak izan ziren eta gazte bakoitzak coach bat izan zuen, prozesu guztian zehar lagundu eta babestu zuena.

HEI Txiki-Herritartasunerako eskola

HEI (Herritartasunerako Eskola Irekia), informazio-, topaketa- eta prestakuntza-gune bat, Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuaren barruan, herritarrentzat zein erakundeetako teknikari eta politikarientzat irekia.



Vital Fundazioak **15.000 euroko** laguntza ematen du familiei eta hurrei zuzendutako jardura-programa bat garatzeko. Programa horren helburu nagusiak eragileen (ordezkari politikoak, kolektibo sozialak, teknikariak eta herritarrak) ezagutzak hobetzean ardatzen dira, herritarren partaidetza-ereduaren garapena eta hazkundera sustatzeko. Eta elkarte-sarean bertan eskolaren diseinuari eta edukiei buruz dagoen ezagutza eta esperientzia kontuan hartuta.

30 tailer eta hainbat bisita egin ziren **Udalaren egoitzetara** eta **hiriko leku enblematikoetara**. Euskaraz eta gaztelaniaz egin ziren, eta horretarako hautatutako prestataileek eman zituzten

Cosmium

Vital Fundazioak hezkuntza-proiektu horren sorrera bultzatu zuen 2016an. **‘Cosmium, izarren bidaiariak’** lanak zientzia eta ingurumena uztartzen ditu, Arabako ikastetxeetako ikasleei alderdi horien inguruko ezagutza helarazteko eta sentsibilizatzeko, horretarako **azken belaunaldiko softwarea duen planetario mugikor bat** erabiliz. Gainera, diziplina anitzeko programa da, eta gai energetikoak jorratzen ditu, biodibertsitateari, osasunari, kulturari eta abarri buruzkoak. Ikuspegi ludiko eta esperimental batetik, proiektuak populazio gazteena sentsibilizatzea du helburu, zero garbiek gizateriarentzat duten garrantziaren inguruan, ondare horrek zientziarako, hezkuntzarako, kulturarako eta, jakina, bizi-kalitatearen faktore gisa duen balioa ezagutaraziz.

Edukiak taldeen adinera egokitzen dira eta begirale adituek eskaintzen dituzte gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez. 2019an **190 saio** egin dira, **37 ikastetxetan banatuta, eta 5.995 ikaslek hartu dute parte**. 2016an programa hasi zenetik, 844 saio egin dira Arabako 136 ikastetxetan banatuta, eta 23.885 ikasle bertaratu dira.



Gosari osasungarriak

Programa hau **Arabako ikastetxe guztietako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta** dago, eta gazteenak egunero gosari egokia egitearen garrantziaz kontzientziazatzea du helburu. **40 eta 45 minutu bitarteko informazio-tailer digitalen bidez**, nutrizionista profesionalak zuzenduta, ikasleei gosarian zenbait elikagai sartzearen garrantzia eta bizi-ohitura osasungarriak azaltzen zaizkie. Tailerrekin, gainera, abestiak, jolasak dituzte eta marrazki lehiaketa batean parte hartzeko aukera ere ematen dute.

Proiektua doakoa da tailerrak eman nahi dituzten ikastetxeentzat. 2019an, modu osasungarrian gosaltzen ikasteko ekimen horren bosgarren edizioa egin da.

+55 prestakuntza programak

Vital Fundazioak prestakuntza eta laguntza lan handia egiten du 55 urtetik gorako kolektiboarentzat. Urtean zehar, hainbat gairi buruzko zenbait prestakuntza-ikastaro egiten ditu, eta irakasle espezializatuak ematen dituzte bere egoitzan, Kordoia Etxean.

2019an **2.258 ikaslek** jaso dute irakaskuntza. Nabarmenezkoa da teknologia berriak (Internet eta saskilako telefonoak) ikasteko ikastaroek duten harrera handia. Humanitateei buruzko ikastaroek, hala nola Historia edo Filosofia ikastaroek, onarpen handia dute gure ikasleen artean, gero eta gehiago interesatzen baitzaizkie ekonomiarik eta legeriarik buruzko tailer praktikoak, oso baliagarriak baitira eguneroko bizitzan, ezagutza eta autonomia handiagoa ematen diete-eta.



Literatura, mindfulness edo hizkuntzei buruzko ikastaroak pixkanaka-pixkanaka ari dira zaletu gehiago biltzen.

PRESTAKUNTZA PROGRAMAK	14	2.258
MUGIKORRA ERABILTZEN IKASTEA	1	136
HIZKUNTZA IKASTAROAK	1	63
INFORMATIKA ETA MUGIKORRARI BURUZKO IKASTAROAK	1	541
LITERATURAREKIN TOPAKETAK	1	30
ANTZINAKO HISTORIA	1	540
FILOSOFIAREN HISTORIA	1	247
PSIKOLOGIAREN HISTORIA/MINDFULNESS	2	90
EKONOMIA ETA LEGERIA TAILERRA	2	130
ARGAZKI DIGITALEI BURUZKO TAILERRAK	1	15
HISTORIA	3	466

La Formación Profesional. Egibide.

Vital Fundazioak Araban Lanbide Heziketarekin duen konpromisoa **Egibide** lanbide-heziketako zentroari laguntzean gauzatzen da, haren patronatuko kide fundatzailea baita. Egibideko ikastetxeek, derrigorrezko bigarren hezkuntzaz eta derrigorrezko hezkuntzaren ondokoaz gain, Lanbide Heziketa arautuko eta arautu gabeko ikastaroak ematen dizkiete **ia 7.000 ikasleri urtero**, eta hezkuntza-eskaintza oso zabala osatzen dute, eta gure lurraldeko errealitate soziolaboralarekin lotuta dago, Arabako industria-ehunaren eskaerei erantzuten baitie.

Vital Fundazioak **552.180 euro** baino gehiago jarri zituen 2019an, besteak beste, ekipamenduetarako, irakasleen prestakuntzarako, beketarako eta hezkuntza indartzeko eta/edo laneratzeko eta lanbide-kualifikaziorako programetarako **laguntzen ezohiko planera** bideratuak.

Era berean, Vital Fundazioak % 20ko partaidetza du **Vitoria-Gasteizko Lanbide Heziketako Partzuergoaren** mantentze-lanetan (Eusko Jaurlaritzak, Vitoria-Gasteizko Udalak eta Vital Fundazioak osatutako erakundea). Horri esker, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Egibide ikastetxe itunduaren arteko hezkuntza-itunaren zuzkidura osa daiteke, hezkuntza-plazaren kostu handiagoren aldea ikasleek ordaintzen duten matrikulari ez egozteko.

Erakundearen lankidetzaren beste funtsezko alderdi bat **‘EGIBIDE-Vital Fundazioa’ Harrera Gelaren** jarraipenerako da, ikasle etorkinei oinarritzko prestakuntza-tresnak ematen baitizkie, ikastetxeko hezkuntza-sistemara pixkanaka eta modu egokian egokitzen direla bermatuz.



Bekak

Egibideren Lanbide Heziketako bekak

Vital Fundazioak Jesús Obrero-Elizbarrutiko Fundazioarekin (Egibide) duen hitzarmenaren barruan, nabarmentzekoa da ikastetxean garatu beharreko **proiektu teknologikoei lotutako LHko tituludunentzako 10 bekako funts bat** sortzeko partida, **30.000 eurokoa**.

Horrela, Arabako gazteen artean **berrikuntza teknologikoaren aldeko apustua** indartu da. Ikastaro honetan beka-dun izan diren arloak honako hauek izan dira: Kalitate-prozedurak laborategi kimikoan; Ingurumen-kudeaketako eta -sentsibilizazioko prozedurak; Kudeaketarako aplikazio informatikoen garapena; Ostalaritzaren kudeaketa integrala; Marketina eta komunikazioa/administrazioa eta finantzak/Zuzendaritzari laguntzea; Informatika-ekipoa; Kudeaketa, inbentarioa eta irudi pertsonaleko areto batekin lotutako jarduerak; Sistema 4.0 industrian integratzea; Industria-ekipoen mantentze-lanak kudeatzea; Fabrikazio- eta muntaketa-proiektuak garatzea.

Beka horiek jaso ahal izateko, beharrezkoa da Goi-mailako Teknikari-titulua izatea Egibideko campusetako batean (Arriaga, Jesús Obrero, Mendizorrotza, Molinuevo edo Nieves Cano) 2017/2018 edo 2018/2019 ikasturteetan.

Lanbide Heziketa sustatzeko HETEL bekak

HETEL irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta **Euskadiko Lanbide Heziketako 23 ikastetxe** biltzen ditu. 1987tik ari dira lanean euskal LH hobetzeko, gure gazteen enplegarritasunari eta gure enpresen lehiakortasunari laguntzeko helburuarekin.

2019an, HETELekin sinatutako hitzarmenaren bidez, Vital Fundazioak **17.400 euroko** ekarpena egin zuen **Arabako Lanbide Heziketa Sustatzeko Kanpaina** bultzatzeko; Europako beste herrialde batzuetako Lanbide Heziketako beste zentro batzuekin batera egindako **“Nazioarteko Diseinu Proiektua”** garatzeko; eta lurraldeko enpresetan prestakuntza dualeko programak garatzen ari diren Arabako HETEL zentroetako ikasleek **Europako herrialdeetan 4 prestakuntza-egonaldi** egin ahal izateko.

Deusto/Egibide bekak

Vital Fundazioak **Deustuko Unibertsitatearen eta Egibideren** arteko aliantza estrategikoarekin egindako ekarpena erabakigarria izan da lanbide-profil berri bat lortzeko, ekoizpen-prozesuen eraldaketa gidatzeko gai izango dena teknologia eta zerbitzu digitalak enpresa-estrategiaren funtsezko zati gisa txertatuz. **Industria Digitaleko Gradu Dualari 30.000 euroko** laguntza ekonomikoa eman zitzaion ikasturte honetan, hura egin zuten Arabako **12 ikasleentzako beken eta laguntzen programan**.



Laguntza ekonomiko individualizatua da, eta **lehen mailako ikasleei** eskaintzen zaie. Lehenengo mailako ikasleengan zentratzeko arrazoia da gainerako ikasturteetan (2., 3. eta 4. mailak), prestakuntza duala denez, enpresetako egonaldiak izango dituztela, eta horiei esker, hein handi batean, ikasketa horiek egitearen kostua finantzatu ahal izango dutela. Bekaren zenbatekoa familiaren errentaren arabera izango da, eta 2.000 eta 3.000 euro artekoa.

Ekonomialarien Euskal Elkargoan praktikak egiteko bekak

Vital Fundazioak **14.000 euro** eman dizkio Ekonomisten Euskal Elkargoari **Arabako enpresetan sei hilabetez lan-praktikak egiteko 10 beka finantzatzeko lizentziatu berrientzat.**

Praktikez gain, bekadunek prestakuntza-ikastaro bat ere jasotzen dute elkargoaren Arabako egoitzan bertan, 29 urtetik beherako ekonomialariei lan-merkatuan sartzen laguntzeko.

Erasmus Unibertsitate-bekak

Arabian erroldatuta dagoen eta gutxienez hiru urteko antzinatasuna duen edozein unibertsitariori zuzenduta, baita edozein unibertsitatek **Europar Batasuneko Socrates/Erasmus Programan** parte hartzeko ofizialki hautatu dituen estatuko edozein unibertsitateko ikasle arabarrei ere. Beka horietako bat lortzeko interesa duten unibertsitario gehienek EHUn ikasten dute.

Laguntza ekonomikoak **800 eurokoak** izango dira hautatutako pertsonak ikasturte oso batean parte hartuko badu, eta gehienez **400 eurokoak** izango dira lau eta sei hilabete bitarteko eskola-aldietarako. Lau hilabete baino gutxiagoko egonaldietarako **100 eurorainoko** beka espezifikoak ere badaude.

Deialdi horren barruan, **egoera ekonomiko berezian dauden gazteen** kasua hartzen da kontuan, beka arruntak bikoizten dituen zenbatekoa jaso baitezakete, **1.600 euroraino**. Vital Fundazioak 113 beka eman ditu deialdi honetan, eta **42.800 euro** bideratu dira horietara.

Ingelesa hobetzeko bekak

Ingelesaren ezagutza hobetzea da, **bereziki maila teknikoan eta komertzialean**, unibertsitateko tituludunei eta goi-mailako lanbide-heziketako tituludunei zuzendutako beka hauen helburua.

2019ko deialdian **20 beka** jaso ziren **Britainia Handian edo Irlandan hiru hilabeteko egonaldiak egiteko, lanean edo lan-praktiketan**, hizkuntza murgiltze ingurune batean, hainbat esparrutan, hala nola finantzetan, merketan, logistikan, giza baliabideetan, hezkuntzan, komunikabideetan edo zuzenbidean, besteak beste. Eskatzaile bakoitzak **2.000 euro arteko** beka izan zuen.

Beste **20 beka** ere eskaini ziren **Idiomas Fundazioan ingeles teknikoa eta komertziala hobetzeko ikastaroa** egiteko. Beka horietako bakoitzak **650 euro** jaso zituen B1 maila gainditu zuten ikasleentzat, ziurtagiriaren edo egindako probaren bidez.

Guztira, **15 ikaslek** jaso dituzte beka horiek, eta Vital Fundazioak 29.000 euro baino gehiago ordaindu zituen helburu horretarako.

Euskara ikasteko bekak

Ardatz Kultur Elkartea euskara irakasleen elkartea da. Hiru ikastetxe ditu Vitoria-Gasteizen eta duela 25 urte baino gehiagotik dihardute lan egiten euskararen irakaskuntzan. Vital Fundazioak **15.000 euroko** hitzarmena sinatu zuen elkarte horrekin, **18-25 urte bitarteko gazteentzat euskara ikasteko bekak finantzatzeko.**

Gehienak gazteak dira, lehen enpleguaren bila ari direnak, ikasketak amaitu berri dituztenak edo amaitzeko zorian daudenak. Euskara ikasteko interesa duten ikasleak dira, eta haien egoera ekonomikoak eragotzi egiten die ordutegi trinkoko eta kostu handiagoko ikastaroetan izena ematea.

Ikastaroak **IKA Euskaltegia** ematen dira eta 2019an 34 ikaslek jaso zituzten bekak.

Ikerketarako eta ekintzailetzarako laguntza

Lankidetza UPV/EHUekin

Vital Fundazioaren ildo egituratzaileen artean daude ikerketa indartzea eta talentu gazteei laguntzea. Horregatik, **Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV/EHU)** lankidetzan dihardu, hainbat proiektu garatzeko. 2019an **30.000 euro** bideratu ziren ikerketarekin, ekintzailetzarekin eta ezagutzaren hedapenarekin lotutako hainbat ekimenetara.

Ikerketaren emaitzak gizarteari transferitzea babesten dugu, oinarri teknologikoko enpresa berriak sortuz: **INIZIA Arabacampus programa eta CBI@Basque Country University Araba Campus.**

Lurraldeari eta garapen jasangarriaren helburuei (GJH) lotutako ikerketa-proiektuen garapenean ere presente gaude. Aurreko urteetan bezala, erabakigarria izan da Bibat Museoan azaroaren 7tik 10era bitartean burutu zen **‘Zientzia Astea’, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astea** Vital Fundazioak egindako ekarpena.

Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera

Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak Enpresak Sortzeko Zerbitzu bat du eratuta, ekintzaileari laguntza integrala emateko helburuz, enpresa-proiektu bat garatzeak eta abian jartzeak dakarren erronkari arrakastaz aurre egiteko.

Vital Fundazioak bi programa bereiziren bidez laguntzen ditu ekintza horiek: **Ekintzailetza Programa** (2009tik), enpresa-ekimen berriak sustatzen dituzten **10 proiekturi zuzendutako 10 bekarekin, eta Sendotzen Programa** (2016tik), sortu berri diren eta jarraitzeko baliabideak behar dituzten enpresei zuzendutako **beste 10 bekarrekin**, adibidez, aholkularitza, prestakuntza eta abar. 20 ekintzaile horiei emandako diru-laguntzak 35.000 euroko ordainketa ekarri zion erakundeari

AJEBASK

Vital Fundazioa eta **Arabako Enpresari Gazteen Elkartea (Ajebask-Araba)** bat datoz zenbait helburuetan, besteak beste, enpresaburu gazteei laguntzeko eta gure lurraldean enplegua sor dezaketen proiektu berriak sortzen laguntzeko ekintzak bultzatzearekin. Helburu horri jarraiki, erakunde biek lankidetzak-hitzarmen bat dute ekintzailetzari laguntzeko ekimenak abian jartzeko. Ekimen horiek 33.750 euroko laguntzaren bidez gauzatu ziren 2019an.

Aurten egin diren ekintzak hauek izan dira: **“Autoenplegurako sentsibilizatzeko” 20 jardunaldi**, Arabako Lanbide Heziketako eta Batxilergoko zentroetan, 16 eta 30 urte bitarteko gazteei eta landa-garapeneko eragileei, gizarte-langileei, dinamizatzaileei, teknikariei eta interesa duten Arabako lurralde historikoko pertsonen zuzenduta; **“Enpresak sendotzea”**, enpresari gazteei kudeaketan, DBL on, marketinean, giza baliabideetan eta bestelakoetan laguntzeko zerbitzuen bidez; **“Esperientziatik ikastea”** ekintzaileentzako mentoring programa SECOTen eskutik; erretiroa hartu duten profesionalak SECOT; **Ekintzaile gazteei laguntzeko poltsak**, beren enpresaren bizitzako lehen bi urteetan abian jartzeko edo sendotzeko; AJEBASKera enplegu bila hurbiltzen diren eta **gizarte-bazterketako egoeran edo lan-esperientziarik gabe dauden gazteei laguntza ematea**, eta **‘Enpresa coaching-a’** sentsibilizazio jardunaldi bitan enpresariekin.

ASLE

Vital Fundazioak lankidetzak-hitzarmen bat sinatu du **ASLE, EAEko Lan Sozietateen Enpresa Elkartarekin**, Lan-Sozietate erako enpresa-proiektu bat abian jarri edo hartan parte hartu nahi duten lurraldeko langabeei eta ekintzaileei laguntzeko.

Vital Fundazioak **25.000 euroko** ekarpena egin du 2019an, **sei lan-sozietate berri** garatzeko **zuzeneko laguntza-poltsetan; Ekintzaileen Foroan**, zeina lau orduko zortzi saiotan garatu baitzen, hainbat gairen inguruko prestakuntza-pilulekin eta Networking-ean eta sare profesionalen sorrerari garrantzi berezia emanez, batez beste hamasei pertsonak parte hartuta; eta “Norberaren enpresaren sorkuntza eta kudeaketa jasagarria” izeneko berrogeita hamar orduko iraupeneko **prestatkuntza-ikastaroan**. Bederatzi lagunek jaso zuten ikastaro hori.

BIC Araba

BIC Araba, Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroaren helburua da jarduera berritzaile berriak prestatu eta garatzeko behar diren zerbitzuak ematea, Arabaren garapen ekonomikoari laguntzeko.

Vital Fundazioak **25.000 € baino gehiagoko** laguntza ematen du Arabako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasleen artean **“IkasEkiten – Ekiten ikasi”** programa garatzeko, balio ekintzaileetan hezteko, partaidetza soziala, ikaskuntza, pentsamendua, lana eta arazoaren konponbidea garatzen dituen metodologia bat erabiliz, tailer praktikoaren bidez eta parke teknologikoko enpresak bisitatuz.



IkasEkitenek espiritu ekintzailea bultzatu du zortzigarren edizio honetan parte hartu duten **17 ikasle-txetako 800 ikasle baino gehiagoren artean**. Bost saioetan zehar, Mendealde, Amaurre, San Jose Etxea, San Bizente Ikastola, Nazareth, Niño Jesus, Murgia, San Viator, Virgen Niña, Egibide, Badaia Nanclares, Ikasbidea, San Prudentzio, Corazonistas, Carmelitas Sagrado Corazón, Urkide eta Marianistas ikastetxeetako ikasleek **BIC Araba eta Arabako Parke Teknologoaren instalazioak** ezagutzeko aukera izan dute, baita ekintzailetza arloaren errealitatea ere.

Vital Fundazioak, gainera, **Araba Ekinean** proiektuaren beste ekimen batzuetan parte hartu zuen, hala nola **Ekin Breakfast**, ekintzailetzaren inguruko topaketa tematikoak, Arabako geografia osoko hainbat tokitako erakunde laguntzaileekin egin direnak;

Araba Ekinean B2B III. Topaketa, aholkularitza-, finantzaketa- eta azeleragailu-erakundeekin edo beste ekintzaile batzuekin banakako bilerak hitzartzeko; **Ekin Day**, euren ideiak eta proiektuak bultzatzeko zenbait oztopo gainditu dituzten pertsona inspiratzaileen esperientzia bildu zuen jardunaldia, edo **‘Zure ideiak balio du’ lehiaketaren 15. edizioa**, proiektuak 8 kategoriatan saritu zituen: ideiak, Jasagarritasuna, Merkataritza eta Turismoa, Nekazaritzako Elikagaiak, Industria, eta Zerbitzuak.

Gainera, Vital Fundazioaren laguntzari esker, **UPV/EHUko Arabako campuseko hamalau ikaslek Ginebran parte hartu dute CERNen proiektu batean**, munduko fisika laborategirik garrantzitsuenen.

Formula Student Gasteiz

Formula Student Gasteiz automobilgintzan esperientzia duten lau ikasleren ametsaren emaitza da. Ikasle horiek 2018. urtearen amaieran elkartzea erabaki zuten, **Formula Student** lehiaketan parte hartzeko helburuz. Lehiaketa horrek mundu osoko unibertsitate opetsuenetako taldeak aurrez aurre jartzen ditu. Lehiaketa hori FISITAK antolatzen du (Fédération Internationale des Sociétés d'Ingénieurs des Techniques de l'Automobile). Gaur egun, Formula Student Gasteiz **UPV-EHUko Arabako campuseko hainbat fakultatetako 37 kidek** osatzen dute, eta **lehiaketarako jarleku bakarreko ibilgailu elektrikoaren diseinuan eta eraikuntzan** elkarrekin parte hartzen dute.

Vital Fundazioa proiektu berritzaile honetarako **5.000 euroko** ekarpena egiten hasi da aurtengo, espezialitate zientifiko-teknikoko ikasleei lehiaketa-prototipoen fabrikazioan praktikak egiteko aukera ematen diena.

Gainera, EHUren nazioartekotzean lankidetzak pribatua eta publikoa sustatzera bideratzen duten ekintzak bultzatzeko aukera ematen du.

Diseinu eta eraikuntza lanetan hainbat sailek hartzen dute parte (diseinua, mekanika, zuzendaritza, transmisioa, etab.), eta 2020an automobila eraikitzea dute helburu, 2021ean lehiaketan sartzeko.

Enplegua eta laneratzea

EmpleoAraba

Arabako industria-sektorean enplegu eskaintza eta eskaria bateratu beharra zegoen, Arabako enpresetan dauden berehalako kontratazio-beharrei erantzuteko, eta horregatik jarri zuten abian 'EmpleoAraba', 2016an, **SEA Arabako Enpresariak** eta Vital Fundazioak.

Vital Fundazioak **137.500 euro** bideratu zituen guztira EmpleoAraba programaren barruan hainbat ekimen

Hiru urte hauetan, enplegu eta kualifikazioen Arabako behatokia finkatu da, eta eguneratu egin da. Horretarako, Arabako lurraldean **kualifikatutako lanbide-profilak identifikatu eta erregistratzeko** eta enplegu-deialdiak egiteko. 4.000 profil inguru bildu eta aztertu dira. Datu-base hori sortu ondoren, **gazteei laguntza ematen zaie, laneratzeko, orientatzeko eta bitartekotza egiteko.**

Ibilbide pertsonalizatua ezarri ondoren, programan parte hartzen dutenek **zeharkako gaitasunei eta bitarteko aginteei buruzko prestakuntza** jasotzen dute, Mondragon Unibertsitateak eta Egibidek emana. Horrez gain, **enpresen enplegu eskaerak ere aintzat hartzen dira.**

2019an, Vital Fundazioaren laguntza erabakigarria izan da EmpleoAraba proiektuaren barruan kokatutako bi ekimen garrantzitsu garatzeko. Batetik, **BACK TO ARABA TALENT FORUM** delakoaren bigarren edizioa, bere garaian etorkizun profesionala aurkitzeko mailetak egin behar izan zituzten profesional arabarren itzulera profesionala errazteko. Artium Museoan egin ziren jardunaldiak garatzeko **30.000 euro** jarri zituen erakundeak, eta horiei esker Arabako **207 profesionalek 35 enpresaren lan eskaintzak jaso zituzten etxera itzultzeko.** Back To Araba programan parte hartu zutenen % 35 beste autonomia-erkidego batzuetan bizi zen, eta % 39 European.

Bestalde, ekitaldi honetan **Esperientziarik Gabekoak Laneratzeko Bekak** berreskuratu ziren, titulazioa bai, baina esperientziarik ez duten lurraldeko 25 gaztek prestakuntza osatu ahal izan zezaten, Arabako enpresetan praktikak egiteko asmo handiko programa errealista bat burutuz.



Hazia 23

Vital Fundazioa Hazia 23 **laneratzeko programaren** jarraipenerako beharrezko laguntzaileetako bat da. Vitoria-Gasteizko Udalak bultzatzen du programa hori, eta ADSIS Fundazioaren, Egibide Fundazioaren eta Vitoria-Gasteizko Elizbarrutiko Cáritasen lankidetzak ere baditu.

Programak **23 urtetik beherako langabeentzako** neurriak bultzatu nahi ditu, baina, salbuespen gisa, prestakuntza- eta enplegu-sistema batzuetan sartuta ez dauden 30 urtera arteko pertsonak artatu daitezke.

Hazia 23 programan jasotako ekintzek fase guztiak hartzen dituzte barnean: programa honen xede izan daitezkeen profilak identifikatzetik enpresa batean kontratatzeraino, besteak beste, honako etapa hauetatik igarota: banakako ebaluazioa egitea, laneratzeko ibilbide pertsonala diseinatzea, tutoretza-lanak egitea, hainbat prestakuntza-modulu egitea eta bekak lortzea. Prozesu hori guztia bat dator eskola-egutegiarekin, eta irailetik ekainera egiten da. Guztira **20 gaztek** jaso zuten egiaztapen-diploma, lortutako prestakuntza espezifikoa gatik.

—— Micaela Portilla Tailer Eskola (Añanako Kuadrilla)

Vital Fundazioak lankidetzaz hitzarmena berritu du **Añanako Kuadrillarekin**, Fontetxako Micaela Portilla Tailer Eskolaren funtzionamendua ahalbidetzeko. Prestakuntza eta Enplegu zentro bat da, Añanako Kuadrillak sustatua, eta haren helburua da langabezia dauden gazteak ogibide batean trebatzea, zaharberritze-arloan, zehazki igeltserotza-, zurajegintza- eta hargintza-espezialitateetan, baso-ezagutze gain, baita **laneratzea erraztea eta Orgaztarren Fontetxako (Araba) dorre-jauregia eta Gesaltza Añanako Gatz Harana zaharberritzea** ere.

Vital Fundazioak **112.00 euro baino gehiago** eman ditu prestakuntza arautuaren ordezkotako prestakuntza bat eskaintzeko, langabezia-txartela eta atzeritarren kasuan bizileku-baimena duten 16 eta 24 urte bitarteko biztanleen sektoreari lan-merkatuan sartzen laguntzeko.

Tailer Eskolak laneratzea du helburu, ondarea berreskuratuz eta enpresa jarduerari lagunduz Kuadrillan. Aurten gazte horiek kontratatze aukera zabaldu da eskualdetik kanpoko beste enpresa batzuetara.

Vital Fundazioak beste kuadrilla batzuetako prestakuntza- eta enplegu-proiektuei ere laguntzen jarraitu du, hala nola **Añanako Kuadrillarekin** sinatutako **10.000 euroko** hitzarmenari.



—— Laneratzea Aiarako Kuadrillan

Vital Fundazioak lankidetzaz hitzarmen bat du **Aiarako Kuadrillarekin** 2016tik, **10.000 eurokoa**, enpresa txiki eta ertainen prestakuntzarekin eta birziklatzearekin, laneratzearekin eta kuadrilla osatzen duten udalerrietako bizilagunen enplegarritasuna handitzearekin lotutako jarduketetarako laguntza ekonomikoa emateko. 2019an, laguntza hori **Amurrion** eman ziren 'Marketing digitala saltokientzat eta ETEentzat' eta 'Enplegu eta prestakuntza foroa' tailerrak eta **Laudion** egin zen 'Merkataritza sendotzea' burutzeko erabili da.

—— Kolektibo espezifikoei zuzendutako enplegu-ekimenak

SARTU-ARABA Onura Publikokoa eta Gizarte Interesekoa da, eta gizarte-zerbitzuen sektorean dihardu, **marginalizazioaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzeko, gizarte-laguntzako komunitate-zerbitzuen sareko beste zerbitzu publiko bat den aldetik**. Kolektibo horrek pertsonetan eta gizarte- eta lan-inguruneetan beharrezkoak diren aldaketak bultzatzen ditu gaitasun pertsonal eta profesionalen garapena sustatzeko, eta Vital Fundaziotik **44.000 euro** jaso zituen lankidetzaz hitzarmen bati esker.

“BATEKIN” Borondatezko Gizarte Ekintza Sustatzeko Bulegoa zerbitzu integrala eta doakoa da Arabako irabazi asmorik gabeko erakundeentzat eta boluntarioentzat. 2016an sortu zenetik, Arabako Boluntariotzaren Mapa eratzea lortu du. 70 elkarte laguntzaile baino gehiago eta 300 boluntarioz osatutako datu-basea dute.

Akordio horri esker, 2019an **Gazte Bermerako Programa Operatiboaren** funtzionamendua ahalbidetu da, ikasten ari ez diren eta boluntariotzaren edo **Harrera Zerbitzuaren** esparruan lan egin nahi duten enplegurik gabeko gazteak lan-merkatuan integratzeko, gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuetan eta gizarte-informaziozko beste eskaera batzuetan laguntzeko.

‘AENKOMER’ Arabako Merkataritza eta Zerbitzuen Federazioak, Arabako 30 merkataritza- eta zerbitzu-elkarte adierazgarrienak biltzen dituenak, prestakuntza-tailerrak jarri ditu abian, bai etorkizuneko langileentzat, bai merkataritza- edo zerbitzu-establezimendu bateko ekintzaile edo kudeatzaileentzat, eginkizun jakin batzuk betetzeko gaitasuna hobetzeko. Vital Fundazioak hiru proiektu bultzatzen lagundu du: ‘Marketing Intelligence’, Big Dataren bidez erosle potentziala ezagutzeko; ‘Abastos Merkatuko Gabonetako Azokan espezializatutako merkataritza sustatzeko’; eta ‘Lakua-Arriaga auzoko merkataritza sustatzeko’.



GARAION kolektiboa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, 2008an sortua eta Ozaetan kokatua. Naturarekin, euskararen erabilarekin eta sormenarekin lotutako jolas- eta hezkuntza-jarduerarako etxe bat kudeatzen du, lanbide tradizionalatik abiatuta, hala nola saskigintza, nekazaritza ekologikoa, usadio eta ohitura tradizionalak berreskuratzea eta bioeraikuntza. Ekitaldi honetan, Vital Fundazioak **10.000 euro** bideratu ditu Bioeraikuntzako 3. ikastaroa finantzatzeko laguntzeko.

6. Ondare eta Ingurumen arloa

Euskararako eta Euskal Kulturarako laguntza

Arabako ikastolen eta euskararen aldeko jaia da Araba Euskaraz, eta 1981. urtetik egiten da, dirua biltzeko eta Arabako lurralde historikoan euskararen erabilera sustatzeko. Vital Fundazioa ia hasieratik ari da lankidetzan Araba Euskarazekin, urteko lankidetzak-hitzarmenak sinatuz.

2019an, Araba Euskaraz 39. edizioa egin zen Vitoria-Gasteizen, ekainaren 16an, Armentia ikastolaren alde. Vital Fundazioaren laguntzari esker – **22.700 euro baino gehiago** –, festa horren aurreko jarduerak eta **Ikastolen Federazioak** osatutako hezkuntza-, kultura- eta kirol-programa garatu ziren.



Era berean, beste hitzarmen bat dugu **Denon Eskolarekin, Arabako eskola publikoko ikasleen guraso-elkarteen federazioarekin**, haien jarduera-programa babesteko. Hartzaileak 10.000 familia elkartekide eta 24.000 ikasle baino gehiago dira. Fundaziotik jasotzen dituzten **5.000 euroak** hezkuntzari buruzko informazio-bulegora, hizkuntza-normalizaziora, balioetan oinarritutako hezkuntzara eta landa-eskolelara bideratu dituzte, besteak beste.

Gazteen artean euskarazko abestia sustatzeko asmoz, Vital Fundazioak eta **GEU Gasteiz Euskaldun Elkarateak** lankidetzak-hitzarmen bat sinatu zuten IV. **Kantari Eguna** ospatzeko, Vitoria-Gasteizen egindako Euskararen Astearen esparruan. Guztira, 7 eta 11 urte bitarteko 650 haur inguruk parte hartu zuten, eta azaroan jardun zuten Vital Kulturunean.

Vital Fundazioaren beste helburuetako bat kultur ondarea bizirik mantentzea da. Horretarako, lankidetzak-hitzarmen bat sinatu du **Arabako Dantzarien Biltzarrekin**, bertako folklorea kontserbatzeko eta zabaltzeko. Une honetan Araba eta Vitoria-Gasteiz osoko hogeitasei talde baino gehiagok osatzen dute Dantza Federazioa, 800 dantzari eta 30 begirale baino gehiagorekin. Antolatzen dituzten lehiaketetatik **‘Araba Dantzan’** saioak Arabako herriei bertako dantza ikastaroak eskaintzen dizkie ekainean, uztailan eta irailean. Urtero 500 dantzari



inguru biltzen dituen **‘Dantzari Eguna’** antolatzeke ere baliatzen da aipatutako laguntza hori.

Bertako folklorea gorde eta zabaltzeko asmoz, **‘Umeen Euskal Jaia’** edo **‘Kantuz kantu’** antolatzeke laguntza ematen diogu **Jare Dantza Taldeari** eta **Mulixta Dantza Taldeari ‘Harria’** ikuskizuna egin dezan.

Gure kultura-ondarea osatzen duten aldetik, Vital Fundazioak beste lankidetzak-hitzarmen batzuk ere sinatu ditu hainbat erakunderekin, hala nola **Arabako Euskal Pilota Federazioarekin, Arabako Bertsolari Elkartearekin** edo **Gastronomia Elkartearen Federazioarekin (Boilur)**.

Azokak eta merkatuak

Vital Fundazioak lankidetzak-hitzarmenak ditu udalekin, kuadrillekin eta beste toki-erakunde batzuekin, azoken, nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren eta lurraldea sustatzeko jardueren antolaketa logistikoarekin lankidetzan aritzeko.

Arabako lehen sektorearekin lotutako azoken artean, Vital Fundazioak honako hauek babesten ditu: Arabako Errioxako Mahats-bilketaren Jaia, Gaubeako Patataren Azoka, Pobesko Babarrunaren Azoka, Kuartangoko Perretxikoarena, Aguraingo Ganaduaren Azoka edo Rivabellosako Trufaren Nazioarteko Azoka. Kanpezuko San Martin Azoka, Amurrioko Txakolin Azoka eta Gatz Haraneko azoka ere aipatu behar dira.

Arabaren egin diren 150 ekitalditan egiturak jarri dira (hesiak, puzgarriak, standak, megafonia, karpak, etab.), eta, aurreikuspenen arabera, 80.000 bisitari baino gehiago

Andre Maria Zuriaren azoka

Vital Fundazioak lurraldeko nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreei eta artisau-sektoreari beti eman ohi dien laguntzaren barruan, eta Andre Maria Zuriaren omenezko jaiekin bat eginez, azoka hori berriro egin zen Loma Jeneralaren plazan. **Arabako hamazazpi ekoizle eta artisauk** elikagaiak eskaini zituzten, hala nola ogia, gozogintza, gaztak, hestebeteak eta urdaiazpikoak, marmeladak edo txakolina; eta artisautza, hala nola, abarketak, pinak, giltzatakoak, zeramika, zilarrezko bitxiak edo xaboi naturalak.

Bioaraba

Bioaraba produktu ekologikoen, bizitza osasuntsuaren eta kontsumo arduratsuaren azokaren VI. edizioa azaroaren 15etik 17ra egin zen Vitoria-Gasteizko Iradier Arena barrutian. Ekimena Vital Fundazioaren, Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren laguntza du, eta erakusleen, ekoizleen, merkatarien, banatzaileen, bisitari profesionalen, produktu ekologikoen kontsumitzaileen, erakundeen, elkartearen eta, oro har, publikoaren arteko topaguna da.

70 erakusketaritik gora izan ziren eta erdiak nekazaritzako elikagaien sektorekoak izan ziren, eta gehienak tokiko ekoizleenak

Ardoaraba

Arabako eta Euskadiko turismo erakargarrietako bat bihurtuta, abenduko zubian egin zuten **Ardoaraba azoka**, Vitoria-Gasteizen. Probintzia, Matxete eta Foru plazetan jarritako hiru karpetan Arabako Errioxako 19 upategi, Arabako txakolinaren 6 enpresa eta Arabako sagardogileen 3 egon ziren, baita Rias Baixas edo Cava jatorri-deiturak, ardo urdina edo laranja-ardoa ere.

Vital Fundazioak aktiboki lagundu zuen azokaren hamalagarren edizioa antolatzen, **Txoko Gastronomikoa**, aipatutako dastatzeetarako, ardoen aurkezpenetarako, haurrentzako pintxoak edo tailerrak egiteko gune eskusiboa, eta **haurrentzako txokoa** bultzatuz, non txikiak puzgarriak eta jolasak izan zituzten. Gainera, bisita kultural erantsia duten eraikinetako dastatze-jardueraren jarraipen gisa – berrikuntza 2018ko edizioan –, Kordoi Etxean bat egin zen abenduaren 7an. Guztira, Vital Fundazioaren ekarpena **16.000 eurotik** gorakoa izan zen.

Miniature Pintxos Congress

Jardunaldi gastronomiko horien VI. edizioa martxoaren 4tik 6ra bitartean izan zen, Vitoria-Gasteizko Europa jauregian. Beste behin ere, kongresu hori Euskadiko eta Nafarroako nahiz Asturias eta Galiziako beste bi eskualde gonbidatuetako **miniaturazko sukaldaritzan, pintxoetan eta aperitiboetan** espezializatutako profesionalen topagunea izan zen.

Kongresuaz gain, Miniature Pintxos Congress-ek jarduera-programa oso bat du, sektore profesionalari eta publiko orokorrari zuzendua, eta beste **11.000 euro** baino gehiagoko ekarpena izan zuen.



Gabonetako Vitoria-Gasteizko azoka

Gabon-egunaren aurreko ostegunean, gure hiriaren erdigunea Gabonetako Merkatura hurbiltzen diren milaka pertsonen topagune bihurtzen da. Vital Fundazioak antolatutako **Gabonetako Nekazaritza Azoka tradizionalaren 62. edizioak 140 postu** jarri zituen abenduaren 19an Vitoria-Gasteizko Espainia plazan eta Lehendakari Agirre kalean. Espainia plaza nekazaritzako elikagaien merkatuaren eta etxeko hegaztien erakustokiaren eszenatokia izan zen; Lehendakari Agirre kalean, berriz, artisautza erakusketa eta salmenta postuak jarri zituzten.



Saltzaileek, batez ere Arabakoek, etxeko produktu ugari eskaini zituzten, hala nola fruta, ortuari eta barazkiak; haragiak eta hestebeteak; gaztak, eztia, pateak, kontserbak, ardoak eta likoreak; ogia eta gozogintza (euskal pastela, erroskilak edo tartak) edo beste elikagai batzuk (Gabonetakoak, ekologikoak, boilurrak, arrautzak, Arabako olio edo patata erreak). Ez ziren falta izan, ohi bezala, taloak edo sagardoa bezalako elementu tradizionalak.

Azokak **'Plastikorik ez'** kanpainaren bigarren edizioa burutu zuen, Vital Fundazioaren ekimena da eta 'Bizitzeko modu bat partekatzen dugu' lelopeko ingurumen-konpromisoaren ildotik dator. Helburua merkatua plastikorik gabeko gune bihurtzea izan zen. Bertaratutakoei **oihalezko 10.000 erosketa-poltsa** banatu zitzaizkien plazako sarreretan, eta aldi berean, banaketa horri buruzko informazio-kanpaina bat egin zen. Gainera, saltzaileek, salmentekin batera, **material biodegradagarriko 23.000 poltsa** entregatu zituzten, aldezturik Vital Fundazioak beraiei banatuak.

Lurralde sustapena

Ardoaren kultura

Arabako Errioxako ardoa gure lurraldeko produktu enblematikoetako bat da, eta Vital Fundazioak egiten duen Arabako lurraldea sustatzeko lanaren funtsezko zati bat.

Helburu horren barruan dago **10.000 euroko** lankidetzaz hitzarmena, **Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidea Elkartearekin** sinatua, foro enogastronomiko batean oinarritutako prestakuntza-jardueren programa bat garatzeko. Foro horretan, sektorearekin lotutako erakunde eta enpresa guztiek parte hartu eta lan egin zuten.

Era berean, Vital Fundazioa **‘Zuria eta kitto’** ekimenarekin lankidetzan ari da, Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidea eta Vitoria-Gasteizko Abastos Merkatuak abian jartzen duten ekimenarekin, hain zuzen ere. **Arabako Errioxako zuriek eta hiru jatorrizko izendapenetako txakolinak** beren lekua bilatu zuten munduan abuztuaren 30ean eta 31n egin zen azokan. Gastronomia eta musika uztartu zituen azoka horrek, hiriko erdiguneko hiru tokitan: Aihotz plazan, Foruen plazan eta Santa Barbara plazan.



Vitoria-Gasteiz ardoaren hiri gisa identifikatzeko eta Arabako Errioxako eta Aiaraldea kalitateko ardoak sustatzeko helburuarekin lanean ari diren eta kezka ekintzailea duten profesionalen elkarte da **Wine City**.

Vital Fundazioa 2019an Wine Cityarekin lankidetzan aritu zen, eta **8.400 euro** eman zituen uztailaren 25ean izan zen **Barriken IV. Lasterketa**, Blusa eta Neskaren egunean.

Gatz Haraneko espazioak berreskuratzea

Vital Fundazioak eta **Añanako Gatz Harana Fundazioak** lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dute Gesaltza Añanan gatz ekoizteko gune gehiago berreskuratzeko prozesuarekin jarraitzeko. 2019an, Vital Fundazioaren **40.000 euroak Añanako Gatz Haraneko kultura- eta ingurumen-paisaia berreskuratzeko eta kontserbatzeko lanetarako** erabili ziren, baita gatz-biltegi bat sendotzeko ere (ondarez babestutako eraikina). Lankidetzaz horrek bi helburu ditu: batetik, Arabako Lurralde Historikoko kultura- eta ingurumen-ondarea berreskuratzea, eta, bestetik, enplegua sortzea; izan ere, proiektua burutzeko Micaela Portilla Prestakuntza Eskolako ikasle ohiak ordaindutako praktiken araubidean kontratatzen dira.



Fundazioak Arabako gatz-ondarearen birgaitzearekin duen konpromisoa azpimarratu du, ezagutaraziz eta haren ustiapen turistikoa babestuz. Horretarako, aurtengo operatarako **35-40 gramoko 5.500 gatz-poltsatxo** atera ditugu berriro, bi fundazioen logoa duen pegatina batekin, bisitariei emateko.

Xabier de Arizaga herbario digitala

Xabier de Arizaga Herbario Digitala **Arabako Natur Institutuak** sortutako tresna bat da, botanikaren zale eta jarraitzaile guztientzat topaketarako eta informaziorako plataforma bat izateko. Helburua **inguratzen gaituen floraren aniztasuna** ahalik eta modu zorrotzenez **jasotzea** da. Herbarioaren izenak Xabier de Arizagari (1748-1830) egiten dio erreferentzia, XVIII. mendeko botanikaria, lore-ikasketen Euskal Herriko aitzindaria. Eltziegion botanikaria izan zen, eta eremu horretan herborizazio lan handia egin zuen; izan ere, Araban botanika modernoaren aitzindarietako bat da.

2019ko laguntzen 2. deialdira aurkeztu zen proiektu horren berri eman nahi izan du Vital Fundazioak.

Ingurumenarekiko konpromisoa

Vital Fundazioak ingurumenaren aldeko apustua sendotu du 2019an. **‘Bizitzeko modu bat partekatzen dugu’** lelopean, asmo handiko proiektu bat jarri du abian, hainbat ekintza biltzen dituena eta hainbat urtetan finkatu eta garatu nahi duena, ingurumenaren babesaren arloan gure lurraldeko erreferente bihurtzeko asmoz.

Fundación Vital Fundazioa ha incrementado en un 25% el área general de “Patrimonio Histórico y Medioambiental” en relación con el año anterior.

‘Plastikorik ez’: programa berria da, eta ahalik eta plastiko eta ontzi gehien kendu nahi dira gure inguru hurbiletik. Kanpaina horren bidez, herritarrek kontzientziatu nahi dira gehiegikeriaz erabiltzeak sortzen dituen arazoez, eta gure egunerokoan erabiltzeko aukera praktikoak eman nahi zaizkie; ikastetxeetara ere eraman zen. Lehen Hezkuntzako 5. mailatik DBHko 4. mailara bitarteko ikasleei zuzendutako **‘Nola murriztu erabilera bakarrekiko plastikoaren kontsumoa?’** **I. Ideia Lehiaketa** deitu zen, kontsumo jasangarrian eta birziklapen egokian kontzientziatzeko eta hezteko.



‘Plastikorik ez’ ekimena osatzeko, **150.000 edalontzi berrerabilgarri** banatu zituzten tabernen eta jatetxeen artean **Andre Maria Zuriaren jaietan**, Vitoria-Gasteizko Udalarekin elkarlanean.



‘Vital Zuhaitzak’: ingurumenaren aldeko konpromisoaren beste ekintza bat da, parte-hartzaileak, familiak, lagun taldeak, elkarteak (ekologistak eta naturalistak, kiroltakoak, eskolakoak, aisialdikoak, udalak, etab.) inguratzen dituen ingurunearekin harreman zuzena izan dezaten, zehazki **gure baso eta zuhaitz bereziak modu aktiboan eta esperimentalean aztertuz.**

Lehen edizio hau lurraldeko bost udalerritan egin zen: **Kanpezun, Agurainen, Guardian, Iruña Okan eta Amurrión. 1.000 lagun** inguruk hartu zuten parte, eta **material zientifikoa zuten 300 motxila** baino gehiago banatu zituzten. Landa-lanaz gain, zuhaitzetara eta baso-ingurune berezietara espezialistek gidatutako ibilbideak egin ziren, ipuin-kontalaria bezalako jarduera paraleloak, ‘Desioen zuhaitza’ eskultura kooperatiboa, joko tradizionalak, bideo-, marrazki- eta argazki-lehiaketak edo flashmob bat ere bai.

Azkenik, ekainaren 30ean, igandea, Vital Fundazioak Vitoria-Gasteizko Florida parkean lehenengo **‘Vital Zuhaitzak’ jaia** antolatu zuen, adin guztietako jendearentzako jardueraz betea.

‘Etxe berdeak’: Vital Fundazioaren ingurumen konpromisoan ezin zen falta **Vitoria-Gasteizko Udalarekin batera** bosgarren urtez martxan jarri zuen ‘Etxe berdeak’ proiektuarekin zuen lankidetzat. Beren eguneroko erabakiek eta ohiturek ingurumenean eta gizartean duten eraginaz kezkatuta dauden familiei zuzendutako hezkuntza programa da. Ekimenak **etxeko kudeaketa arduratsuagoranzko** aldaketa-prozesua sustatzen du, **etxeko uraren eta energiaren kontsumoaren autokontrola sustatuz**, aurrezteko neurriak eta portaerak sartuz eta erosketa etikoagoa eta ekologikoagoa egiten lagunduz.

Programa hasi zenetik **2.000 lagunek baino gehiagok** hartu dute parte programan, eta bi aldiz biderkatu da urtero izena eman duten familien kopurua. 2019an, kopurua 55 familiara zabaltea erabaki zen.

‘Lehen sektore jasangarria’: Vital Fundazioak konpromiso historikoa du gure lehen sektorearen sustapenarekin, **lurraldearen garapen iraunkorrarekin eta ‘0 km’ produktuaren aldeko apustuarekin**. Aurten Eguberrietako Azokan oihal berrerabilgarritzko poltsak sartzen hasi dira eta beste biodegradagarri batzuk eta pixkanaka ekimen hori Arabako gainerako azoketara ere zabaltzen joango da.



‘Vital Eguna’: Urriaren 5ean jai-egun honen beste edizio bat egin zen, Vital Fundazioak laguntzen dituen arabar, elkarte eta kolektibo guztiak harremanak estutzeko. Lehen aldiz, IHOBE – Eusko Jaurlaritzak ekitaldi guztiak ingurumenaren aldetik jasangarritzat jo zituen, eta **Erronka Garbia** zigilua eman zien.

Animaliak artatzea

Vital Fundazioa aspalditik ari da lankidetzan **Vitoria-Gasteizko Animaliak Babesteko SOS Elkartearekin (APA-SOS)**, Vitoria-Gasteizko Animaliak Babesteko Zentroak jasotako animalien bizi-baldintzak hobetzeko. Laguntza hori animaliei ematen zaizkien tratu txarren aurkako sentsibilizazio-kanpainetan oinarritzen da, baita animalia horiek adoptatzeko azoka prestatzean edo autonomia pertsonaleko zentroetan eta adinekoen egoitzetan mas-kotekin laguntzeko programan ere. Gainera, 2019an, laguntzen 2. deialdian **‘Albaitarritza-arreta eta ebakuntza kirurgikoak’** egiteko proiektu bat aurkeztu zuten, eta Vital Fundazioak hori ere artatu zuen.

Etxeko animaliez gain beste batzuek ere kezkatzen gaituzte. **Arabako Ekologistak Martxan Elkarteak** Vital Fundazioaren 5.000 euroko ekarpena jaso du **‘Zadorra ibaiaren arroan igarabari buruzko azterlana’** egiteko, arreta berezia jarritz errepideek ibaietan eta igaraban duten inpaktuari. Baita A1 errepidean igarabarentzat egon daitezkeen pasabideak aztertzeke eta erriberako landarediaren garrantziari buruzko dibulgazio-kanpaina bat egiteko ere.

7. Vital Eguna


Vital Fundazioak **‘Vital Eguna’ ekimenaren bigarren edizioa** egin zuen urriaren 4, 5 eta 6ko asteburuan. 2018an sortu zen jai-ekimen hori, lankide dituen herritarrekin, elkarteekin eta kolektiboekin harremanak estutzeko eta partekatzeke asmoz, baita bere jardun-arlo guztietan ere.

‘Vital Eguna’ ostiral gauean hasi zen, urriak 4, 20:00etan, **‘Gaueko martxa solidarioaren’** eskutik. **Milatik gora lagunek** 8,7 kilometro egin zituzten Armentia bakoaren barrena. Irteera eta helmuga Estadio Fundazioaren instalazioetan, Cervantes pasealekuan, egon ziren, eta bi ordu eta erdiko iraupena izan zuen, zirkuitu xume bat egin zen, edonorentzat iristeko modukoa ia desnibelik gabea. Parte-hartzaile bakoitzak motxila bat jaso zuen, kopeta-argi bat eta identifikazio peto bat zituena, baita ur bidoi berre-rabilgarri bat ere, ibilbidearen hainbat puntutan bete zitekeena. **Martin Fiz** atleta gasteiztarrek lagundu zuen ibilaldian, eta elkartasun-osagai bat izan zuen, izena emandako pertsona bakoitzeko dohaintza bat egiten baitzuen Vital Fundazioak. Oraingo honetan **‘Mendi Solidarioak’** elkarte eta **‘Gaztedi Kluba’** izan ziren onuradunak **1.000 bana euroko** txekia jaso zuten.



Larunbatean, hilak 5, **Euskal Gunearen** eskutik hasi zen jardunaldia. Goizeko zortzietatik Foruen plazaren ingurua gure luraren berezko kulturaren eta nortasunaren erakargune bihurtu zen, hainbat jarduerari esker: euskal produktu ekologikoen azoka **-Bionekaraba-** herri kirolen eta esku pilotako erakustaldia. Plazak, gainera, **Boilurrek** Arabako plater tradizionalak banatzeko gunea hartu zuen. Bertan, **Elikagaien Arabako Bankuaren** aldeko dirua biltzeko hautetsontzi bat jarri zuten. 1.000 euro lortu ziren. Era berean, **Kerman Perez de Heredia** herri kiroltako kirolari ezaguna ere izan zen bertan. Arratsaldean, Foruen plazan, herri kirolak maite dituztenentzat ezinbesteko hitzordua jarri zen, izan ere, **2019ko Euskadiko Aizkolari Txapelketako proba bat** hartu zuen.





taldeko Virginia Apilánezaren begiradapean.

Bigarren edizio honetako beste berrikuntzetako bat **‘Mehatxu estralurtarra!’** izan zen. **Street escape** dibertigarri bat izan zen, zeinetan bost lagun arteko taldeek parte hartu zuten yincana dibertigarri batean eta enigmak ebatzi zituzten Vitoria-Gasteizko hainbat agertokitan, hiria estralurtarren inbasiotik salbatzeko. Parte hartu zuten guztien artean globo-bidaia bat zozkatu zen.

Emakumezkoen kirola ere presente egon zen. Goizeko 10etatik aurrera, Vitoria-Gasteizko **Andre Maria Zuriaren plazan**, bertaratutakoek gure lurraldeko klubek eta federazioek ordezkaturako **hamabost praktikaz** gozatu ahal izan zuten. Hurrengo egunean emakumezkoen kirola **Laudiora** joan zen. Udaletxeko plaza eta Aldai plaza emakumezkoen hogeitak kirol modalitatearen erakustaldien agertoki izan ziren.

Enpresen XVIII. Lasterketa ere egin zen Vital Egunean, larunbat arratsaldean; dagoeneko finkatuta dagoen hitzordua da, eta parte hartzen dutenen artean jarrera osasungarria sustatu nahi du, kirol-espiritua eta lan-arlokoa uztartuz. Bi, hiru eta lau laguneko taldeek, euren enpresen izenean, irteera eta helmuga Andre Maria Zuriaren plazan izan zuen 5 kilometroko zirkuitua egin zuten.



Aldi berean, Aihotz plaza Vitoria-Gasteizko gazteen topagune izan zen larunbat arratsalde osoan, **‘Gazte Fest’** jaialdiari esker, eta aisialdirako eskaintza zabala izan zuen: dantza lehiaketak, Jugger erakustaldi parte-hartzailea, mahai-jokoen txapelketak eta ludoteka libre. ‘Gazte Fest’ jaialdiaren ostean, Aihotz plazan, 20:30etik aurrera, **Deiedra Rebel Folk** eta **The o’ Reillys and the Paddyhats** taldeen kontzertuak izan ziren. Azken horiek euren disko berria aurkeztu zuten, Vital Egunean, eta 2019an Estatu osoan eskaini zuten kontzertu bakarra izan zen.

Gauean, eta Idiomas Fundazioaren laguntzarekin, **Jatorrizko Bertsio Zinema Maratoia** programatu zen. Urriaren 5etik 6ra bitartean, Vital Fundazioa Kulturuneak **24 ordu baino gehiago** eman zituen **zinema jatorrizko bertsioan** eskaintzen, genero-sorta bateko hamahiru film, publiko guztiak asetzeko.

Kordoi Etxeak, Vital Fundazioaren egoitzak, **ate irekien jardunaldia** egin zuen, eta etxeko txikiak aukera izan zuten, Santa Barbara plazan, **Txiki Guneko** jolasak, aurpegiak margotzeko taierra, ile-apaindegi ‘eroa’ eta ‘Rezikletas’ musika ikuskizunarekin gozatzeko. Soinu-kontzertu erabat akustikoa izan zen, material birziklatu eta berrerabilien bitartez egin.



Ingurumen-aztarna gutxitzen saiatuz diseinatu ziren jarduera guztiak, erabilera bakarreko ontziak edo elementu plastikoak kenduz, birziklatzeko hainbat puntu instalatuz eta tokiko, naturako edo artisautzako produktua sustatuz. Gainera, erabili ziren azpiegitura eta elementu gehienak berrerabili egin ziren. Hori guztia dela eta, Ihobek, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari atxikitako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak, emandako **‘ERRONKA GARBIA - Ingurumen Ikuspegitik Ekitaldi Jasangarria’** ziurtagiria lortu zuen 2019ko Vital Egunak.

**ERRONKA
GARBIA**EVENTO
AMBIENTALMENTE
SOSTENIBLE

Casa del Cordón
c/ cuchillería, 24
01001 Vitoria-Gasteiz



FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

www.fundacionvital.eus